

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2023-03-03 OSTIRALA / 852. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Jostorrazaldiak,
saretzeko, salatzeko

HARREMANETARAKO:

**ETXEBIZITZA
ETA
ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA
2023**

publi@guaixe.eus • 661 523 245



Elkarretaratzearen ondoren gurasoek Osasunbideari kexak idatziz edo online egiteko deia egin zuten.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak eta guraso talde batek deituta, 300 bat pertsonen elkarretaratzea egin zuten aurreko ostiralean Altsasuko udaletxe parean. Gutxienez, hurrengo bi ostiraletan ere *Altsasun pediatria orain! Osasun publikoa eta kalitatezkoa guztiondako!* leloa duen kontzentrazioak eginen dira. Haien bidez, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiarri dagokien pediatria lanpostu eta erdi betetzea eskatzen dute, osasun eskualdeak hiru hilabete baitaramatza osasun zerbitzu hori gabe.

Zein da Altsasuko osasun eskualdearen egoera?

Pediatrarik gabe gaude. Pediatriako bi erizain daude. Berez pediatriak artatu behar lituzke haurrak. Erizainek egin ditzaketan edo haiei dagozkien gauzak egiten dituzte, esate baterako, azterketa jakin batzuk. Baina haurra gaixo ekartzen baduzu, momentuko zerbait bada, pediatriakoa ez den erizain batek aztertzen du haurra eta berak baloratzen duenaren arabera

"Pediatria faltak segurtasun falta sortzen digu"

AINHOA LOPEZ DE GOIKOETXEA GALAN GURASOA

Hutsik dauden pediatria plazak betetzea aldarrikatzeko bigarren ostiralez kontzentrazioa eginen da Altsasuko udaletxe parean 18:00etan

Iruñera bidaltzen dizu, edo ez. Iruñean, San Martin doktorea ambulatorioan, pediatria zerbitzua dago arratsaldean. Hara hitzordurik gabe joan zaitezke eta hara bidaltzen gaituzte gaixo dauden haurrak eta haien gurasoak.

Bestela, larriagoa bada, zuzenean ospitalera.

Berez, kilometro batzuk egitea tokatzen da?

Tokatu zaigu jada, bai.

Noiztik dago egoera horrela?

Berez, pediatria gabe, ilbeltzetik gaude. Baina abenduan pediatriak

oporak zituen, hartu zituen eta bere oporrak betetzeko, bera ordezkatzeko, ez zuten inor jarri. **Hiru hilabete!**

Altsasuko osasun eskualdeari pediatria plaza eta erdi dagozkie. Orain arte plaza bakarra izan du beteta. Plaza erdia bete gabe

zegoen. Egon den azkena pediatria zen, baina aurretik zegoena, berez ez zen pediatria. Urte asko zeraman haurrak artatzen, baina, berez, bera ez zen pediatria. Nik entzun dudanez, eta ez dakit zergatik, pediatrek ez omen dute Altsasura etorri nahi. Eta plaza betetzen ez dutenez, sendagileei eskaintzen diete.

Ondorioak: kilometro batzuk egitea San Martin ambulatoriora, Iruñera joan-etorrian ibiltzea. Denbora galdu. Baina, horretaz aparte, pentsatzen dut urduritasuna ere sortuko duela egoerak, ezta?

Bai, hori da. Ikusten baduzu haurra gaixotzen ari dela... Katarro bat edo halako zerbaitekin beti esaten nuen: beno, ea bihar nola dagoen, eta horren arabera eramango dut. Eta egoera nola dagoen jakinda, beharbada momentuan pentsatzen duzu Iruñera joatea. Zeren, bestela, Altsasuko osasun etxera etorri behar zara; pediatria zerbitzukoa ez den erizain batek ikusiko du... Horregatik, batzuetan zuzenean Iruñera joaten da jendea. Momentuko zerbait bada, izutzen



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



bazara. Azkenean, haurrekin ere batzuetan izutzen zara. Beti daukazu beldur hori, ez? Momentuko asistentzia hori, haurrak zer duen baloratzeko, zerbait larria ote den, hemen ez dago bermatuta.

Segurtasun falta sortzen dizue?

Hori da, bai, segurtasun falta. Eta hori haur koxkortuak ditugula. Badut haurdun dagoen lagun bat, erditzeko hilabete falta zaio. Bai hemen, bai Iruñean galdetu du zein den egoera, zeinek eta nola artatu behar dituen jaioberri horiek. Zein protokolo dagoen galdetu du. Esan diete 15 eguneko azterketa San Martinen egingo dutela. Baina handik aurrera tokatzen diren azterketekin zerrenda bat egingo dute eta pediatra Altsasura etortzen denean, orduan deituko dituela eta egin gabe dituzten eta dagozkien azterketa guztiak pasako dizkiela haurrei. Esate baterako, pediatra gabe urte bat pasaz gero, haurra jaio eta urtera egingo diote hirugarren hilabeteari dagokion azterketa eta urtekoa. Hori ez da normala. Azkenean, osasuna oinarrizko eskubide bat da. Berdin du hemen bizi, Iruñean bizi. Ez dakit, zergatik ez duten kentzen Iruñeko pediatra bat eta Altsasura ekartzeko? Han badute aukera. Zer gara bigarren mailako herritarrak? Azkenean eskubide bat da. Ez dakit.

Prebentzio lana ere bada pediatrek egiten dutena. Urteroko azterketak galdu dira?

Bai. Oraintxe bertan pediatra gabe hiru hilabete daramatzagu. Ziurrenik airean hainbat azterketa geratu direla. Prebentzio hori haurrekin garrantzitsua da. Jasota badago hiru hilabete-tara azterketa bat egin behar dela, eta horietan hainbat gauza

begiratu behar dela, zerbaitengatik egiten da azterketa hiru hilabete-tara eta ez da begiratzen sei hilabete-tara. Arazoren bat badago, hiru hilabete horietan azterketa galtzen bada, edo ez bada ikusten, ondoren, zer pasatu behar da horrekin? Zeinek hartuko du horren ardura?

Haurren garapena egokia den aztertzeko era balio dute.

Bai. Gauza asko dira. Helduona ere, baina, uste dut, haurren prebentzioa, azterketa horiek, askoz garrantzitsuagoak direla. **Gurasoen artean zein giro dago?** Kezkatuta gaude. Ezjakintasuna ere bai. Aste honetan ikusi dugu. Burundar herritar berriak informatzen egon gara, zein den egoera jakin zezaten. Esaterako, Olatzagutiko eskolan herritar berrien artean ezjakintasuna ikusi dut. Ez dakite zein egoeratan gauden. Hemengoak garenok batekin edo bestearekin hitz egiten dugu, eta zein den egoera badakigu. Baina burundar berriak, hizkuntza dela, integrazioa dela, edo dena delakoagatik ez dakite zein den egoera.

Pediatría lanpostuak betetzea eskatzeko tematuta segitzen duzue.

Bai. Momentuz, hiru ostiraletan eginen ditugu elkarretaratzeak. Baina ideiak ditugu eta hainbat jarduera egin nahi ditugu pediatría zerbitzua berriz jartzea lortu arte. Lehen esan dudan bezala, eskubide bat da, gure eskubidea da.

Osasunbidearen atean kexaka hasiko zarete?

Kontzentrazioz aparte, jendeari eskatu diogu Altsasuko osasun eskualderako pediatrak eskatzean erreklamazioak aurkezteko; eskubide bat delako eta egoera honi lehenbailehen irtenbide bat emateko. Bi modutara egin daiteke. Osasun Etxean kexua idatziz aurkezten badugu, derrigorrez idatziz erantzun beharra daukate. Nortasun agiriaren kopia batekin aurkeztu behar da kexa. Internet, osasun karpeta bidez eginez gero, posta elektronikoko mezu bat bidaltzen dizute esanez zure kexa jaso dutela, eta kitto. **Lehenbailehen jaso nahi duzue erantzun hori, ezta?**

Bai. Baina ez da gauza bera egun batean 300 kexa online iristea edo 300 kexa idatziz jasotzea. Azken horiei eskutitz bidez erantzun behar zaie. Gure esku dagoen guztia, ahal dugun guztia egingo dugu Altsasu, Olazti eta Ziordirako pediatrak lortzeko.



Guraso bat haurrekin Irurtzongo osasun etxetik ateratzen. ARTXIBOA

Pediatriaren zereginenez eta kopuruaz

Oinarrian medikuntza ikasketak badituzte ere, familia medikuaren eta pediatraren artean aldea dago. Aurrenak adin guztietako pazienteak hartzen dituzten bitartean, pediatrak haur eta nerabeetan espezializatuta daude. Beste berezitasun bat ere badute pediatrek: osasuntsu edo gaixo dauden haurrak aztertzen baitituzte. Sortzetiko akatsek, bariantza genetikoak, garapen arazoek, gaixotasuna eta beste aztertzen dituzte pediatrek. Bere ardura baita haurren hazkuntza, heldutasuna eta garapen biologiko, fisiologiko eta sozialari jarraipena egitea unean-unean. Pediatrak sintomak kontuan hartzean, botikak agintzean eta gaixotasunak diagnostikatzeko haurren fisiologia heldugabea kontuan hartzen du. Azken finean, pediatriaren egitekoa da haurren garapen normalaz eta haren osasunaz arduratzea da, 0 eta 15 urte artean. Hau da, jaiotzen denetik nerabezaroaren akaberara arte eta helduaroaren sarrerara arte.

Kontsulta pasatzeaz aparte, pediatrak data jakinak ditu haurren jarraipena azterketa bidez egiteko: jaio eta 15 egunetara, 3, 4, 6, 12, 18 eta 24 hilabete betetzean, 3, 6, 8, 11 eta 14 urterekin ere. Azterketa

horiek egitean pediatra eta pediatriako erizaina daude. Gainera, badira pediatriako erizainak bakarrik egiten dituen azterketak ere: 3, 5, 9 eta 15 hilabete bete dituztenean. "Baina txertatze egutegi berriarekin 3 eta 5 hilabete-tako azterketak desagertuko dira", jakinarazi du Irurtzongo eta Lekunberriko osasun etxeetako pediatra den Ane Amezketa Tirapleguik.

Pediatrak azaldu duenez, negu honetan kontsultan arnasketa eta digestio aparatuetako gaitzekin batera faringoamigdalitis kasuak ere artatu behar izan ditu, "aurreko urteetan baino patologia gehiago". Pediatren egitekoen artean daude ere gaixotasun akueto eta kronikoen jarraipena edo komunitatea hezteak.

Pediatriaz

Pediatrek medikuntza gradua ikasi dute. Horrek, gutxienez, sei urteko ahalegina eskatzen du. Ondoren, pediatria espezialitatean egin eta barne mediku egoiliar

MEDIKUNTZA IKASI ONDOREN, ESPEZIALIZAZIOA; 10 URTE GUZTIRA

GAUR EGUN NAFARROAN ESPEZIALITATEA EGITEN 8 PEDIATRA DAUDE, LEHEN 4

(BAME) gisa aritzea tokatuko zaio. Lau bat urte. Beraz, pediatrak ez dira ezerezetik sortzen, urte batzuk pasa behar dira profesional bat trebatu eta haur eta nerabeak artatzen hasten denerako.

Amezketak azaldu duenez, berak BAME egin zuenean Nafarroan lau pediatra ziren trebatzen aritu zirenak. "Orain, berriz, zortzi dira. Badaramatzate urteak horrela, hainbat jubilazio aurreikusten baitira". Kontua da espezialitatea bukatu ondoren pediatra berri horiek Nafarroan lanean segitu nahi duten edo kanpora joan. Jaioterrira bueltatu nahi dutelako, edo beste nonbaiten lan baldintzak hobek direlako, Nafarroan trebatutakoak beste toki batean gara dezakete beraien ibilbide profesionala. Amezketak gaztigatu duenez, jardunean ari direnak ere joaten dira "kanpoan lan baldintza eta soldata hobek eskaintzen baitituzte". Hala ere, osasun arloan izan den greba eta dagoen greba deialdia gogoan, "baldintzak eta soldata hobetzeko borrokan" ari direla azaldu du Irurtzongo eskualdeko pediatrak. Amezketak azaldu duenez, "gaur egun Nafarroan eskaintzen diren pediatria lanpostuak betetzeko adina profesionalik ez dago".



"AZTERKETA EGIN EZ ETA ARAZORIK BALEGO, ZEINEK HARTUKO DU HORREN ARDURA?"

AINHOA L. DE GOIKOETXEA



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Urteko egunak

Gauza jakina da urteak 365 egun dituela eta lau urtetan behin 366. Baina ez da horren ezaguna horien artean 189 Munduko egun, Nazioarteko egun eta egun Unibertsala izendatuak direla.

Izendapen hauek NBEk, osoko bilkuran, adostasunez eta ebazpen formal baten bitartez egiten ditu. NBEren agentzia espezializatuek ere, UNESCOk, FAOk eta OMEk, badute gaitasuna erabaki horiek hartzeko.

Eguna, Mundukoa, Nazioartekoa edo Unibertsala izateak berez ez dakar inolako ezberdintasunik egunaren izaeran, baizik eta eguna izendatzeko proposatzen duenak hala izendatua izan dadin eskatu duela. Egun hauek, normalean, egoera jakin batzuen inguruan sentsibilizatzeko eta eskubideak aldarrikatzeko baliatzen dira.

Gaur, adibidez, Entzumenaren Nazioarteko eguna eta Basa-bizitzaren Munduko eguna da.

Tamalez, gehienok, gehienetan, ez gara enteratzen bizi garen egunean zer ospatzen edo aldarrikatzen den, eta zein egun den jakiteko, batzuetan, nahiko lan.

EGUN HAUEK, NORMALEAN, ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEKO BALIATZEN DIRA

Baina badira beste egunak guztion gogoan izaten direnak, eta horietako bat da heldu den asteazkena, marsuaren 8a, Emakumearen Nazioarteko eguna, Berdintasuna aldarrikatzeko eguna, non gizonok zer esan eta egin handia daukagun.

Lerro hauetatik, ezinbestean, Berdintasun horren alde, emakumeek eta gizonok bat egin dezagun animatu nahi dut.

Jakina da egun bateko ekimenarekin ezer gutxi aurreratuko dela eta eguneroko borroka dela baina eguna ezin dela alferrik pasatzen utzi ere garbi izan behar dugun.

Hori hala izanik, eta 189 munduko egun edo antzekorik izendatuak daudela ikusirik, ez litzateke batere gaizki izaneren, gaurko ostirala guztiondako mundiala balitz, inoren baimenik edo izendapenik gabe.

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, 17. orrian, Euskara Zerbitzuak antolatutako Lagunarteko hizkerarekin jolasean tailerraren berri eman genuen. Albitea ilustratzen zuen argazkiko ikasleak ez ziren Atakondoakoak Iñigo Arizako ikastolakoak baizik.

HARA ZER DIEN

Herri oso bat elkartu nahi duen bandera

SAKANAKO SARE ETA ETXERAT

Bandera hitzak elkarren kontra egiten duten bi adiera dituela esan genezake. Alde batetik, banderak jende multzo bat ezaugarri baten arabera batu eta identifikatzeko balio du. Eta, beste alde batetik, banderek jende multzoak bata bestearengandik bereizteko balio dute. Gatazka batean, banderak aurrez aurre borrokan ari diren bi aldeak ikusgarri egiteko balio du. Batzuetan esan izan da, arrazoi puntu batekin, Euskal Herria herri "banderizoa" dela. Erdi Aroan leinu gerrak izan zirenak alderdien arteko gatazkak bilakatu dira historikoki aurrera egin ahala... Ondorio argi batekin; energia gehiegi gastatzen dugu herri honetan elkarri mokoka

egiten, denon indarrak, eta gehiago, beharrezkoak direnean herri gisa ditugun erronka itzelei ganoraz erantzuteko.

Horregatik, Bandera hitzaren hirugarren adiera bat ekarriko dugu hona; Joseba Sarrionandia handiak bere "Hitzen ondoeza" liburuan asmatu zuena. "Itsasoruntz begira; kea da baporeen bandera nagusia", zioen Sarririk duela hogeita bost urte argitaratutako liburuan. Metafora ederra iruditzen zaigu euskal presoen etxeratzearen erronkaren baitan borondate anitzak biltzeko. "Etxerantz" begira, eta bidean, jarri nahi ditugu betirako atzean utzi nahi dugun aro batean askatasuna galdu zutenak. Sinetsita

gudelako presoak itxita mantentzen dituzten burdin tranga berdinak kateatzen dutela gure herria gatazkari, etorkizunerantz hegan irtetea eragotziz. "Etxera" esaldiarekin irudikatu nahi dugun herri gogoa zabaltzeko, zer egokiago tontorrez tontor, bailaraz bailara kea bailitzan barreiatuko den bandera baino. Arbasoengatik ikasi dugu nahi baldin badugu ondoko bailarakoek kearen deidarraz jabetzea, behar beharrezkoa dela guri dagokigun sua hauspotzea. Nahi baldin badugu "Etxera" aldarrikapena herri oso baten oiheri ozen eta indartsu gisa entzutea, zintzilikatu dezagun bi geizidun banderola gure balkoietan; keak hegan egiteko sua hauspotu beharra baitago.

GUTUNA

Bi urte

JEXUS RAZKIN

Kaixo Fran,

Orain bi urte istripu batean hil hintzela. Urte asko eman hituen borrokan eta hori dela eta, guk ere ikasi diagu hik egindako lanari jarraitzen. Gogorra izan duk gainera, aurrera bolie!

Nola deskribatu pasa diren bi urteak? Gure artean zuk

utzitako hutsunean geratuz, ala bizipenekin aurrera eginez?

Urte hauetako pandemia, Ukrainako gerra eta horrelakoek milioika jende hil dizkik, gehienak jubilatua. Jendea beldurtuta zegoak, eta gazteak ia lanik gabe. Joan den urtean izugarritzko lehortea izan genian, errekek eta urtegiak hustuta edo sikatuta, eta baratzean genero gutxi ur faltaz. Esaten

ditek, ni jaio nintzen urtea ere, duela 73 urte, oso arraroa izan zela. Onddoak basoan barra-barra atera zirela eta jendeak gozatu zuela, euririk falta gabe, eta mendian negrilla.

Kontua ez da zer pentsatuko eta zer egingo hukeen hik heuk guzti horri buruz, jadanik ez hago eta. Kontua da aurrera jarraitzeko zer egin genuen guk eta zer egin nahi dugun zure irakaspenei eutsi nahian.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Udal eta kontzejuek 3,8 milioi euro jaso dituzte

Foru gobernua emandako diru hori beraien funtzionamendua eta zerbitzuak finantzatzeko izanen da

SAKANA

Nafarroako Gobernuak 289 milioi euro bideratuko ditu aurten udalerrien eta kontzejuen funtzionamendua eta zerbitzuak finantzatzeko, orain arteko kopururik handiena. Tokiko finantzaketa eredu berria 2022an indarrean sartu zen eta, ondorioz, funtsa % 12,2 handitu da, hau da, 2022an baino 31 milioi euro gehiago jasoko dute toki erakundeek. Udal eta kontzejuendako aurreneko ordainketa 125 milioioika izan da. Haietatik Sakanakoek 3.809.601,21 euro jasoko dituzte.

Gobernutik azaldu dutenez, "lurralde nahikotasun, justizia eta solidaritate kontzeptuetan oinarrituta dagoen tokiko finantzaketaren eredu berria, tokiko erakundeak finantzatzeko inolako aurrekaririk ez duen egonkortasun baten ekarpenagatik bereizten da".

Lehen ordainketaren ondoren, bigarrena agorrilean egitea aurreikusitako da; tokiko erakunde bakoitzari dagozkion kopuruak arautuko dira eta gainerako zenbatekoa ordainduko da. Bestalde, Nafarroako Gobernuak proposatu du 8 milioi euro ematea udalei eta kontzejuei 2022an izandako energia gastuaren igorari aurre egin ahal izateko, Ukrainako Gerraren ondorioz izandako prezioen igoeraren ondorioz. Banaketa toki erakunde bakoitzaren energia kostuaren igoeraren eta horri aurre egiteko duen zergagaitasunaren araberaz ezarriko da.

Hilabete Irurtzongo saihebidetako lanak despeditzeko

Asteartean urte bat beteko da Construcciones Boreste SA erakuntza enpresako langileek Irurtzongo saihebidetako lanei ekin ziotela. Lanek erritmo egokia izan zuten lastailera arte. Orduan gelditu ziren, lanak despeditzeko %10 falta zela. Enpresa eskuz aldatu zen eta jabe berriak langileak kaleratu eta Irurtzongo lana despeditu gabe utzi zuen.

Lehen ordainketa

Udalerrria/Kontzejua Kopurua

Arakil	138.399
Egiarreta	4.480
Ekai	2.239
Errotz	4.314
Etxarren	8.975
Etxeberri	3.622
Hiriberri Arakil	7.584
Ihabar	7.796
Izurdiaga	9.903
Satrustegi	3.004
Urritzola	1.147
Zuhatzu	2.481
Irurtzun	498.531
Irañeta	38.304
Uhartea Arakil	155.004
Arruazu	27.788
Lakuntza	224.773
Arbizu	224.006
Ergoiena	68.008
Lizarraga	12.398
Dorrao	7.758
Unanu	6.421
Etxarri Aranatz	428.589
Lizarragabengoa	2.142
Bakaiku	69.833
Iturmendi	95.622
Urdiain	127.555
Altsasu	1.307.208
Olatzagutia	249.468
Ziordia	72.250
Guztira	3.809.601

Nafarroako Gobernuak kontratua baliogabetu zuen eta enpresak alegaziorik aurkeztu ez zenez, foru administrazioa izan da orain lanei berrekin diena astelehenean. Hainbat "txikikeria" falta dira egiteko: batez ere bi areka-zati, oinezkoentzako pasabideak eta galtzada-harriak amaitzea, argiak eta seinale horizontalak jartzea, lorategiak egokitzea eta ezpondak landareztatzea. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, hilabete inguru iraunen dute lan horiek.

Alokairurako 5 etxeak 2025erako eginak

Gazteei zuzendutako alokairuko etxeak izanen dira. Udalak Nasuvinsa enpresa publikoari San Joan Bidean utzitako lursailean eraikiko dira. Arkitektoak proiektuarekin daude, lanak urte akaberan hasiko dira

ARBIZU

Etxebizitza premiei buruzko Arbizuko Udalaren inkesta 22 pertsonen erantzun zuten 2019an, eta, bide batez, haien premiak zein diren jakinarazi zuten. Arbizuko Udala Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan jarri eta hainbat aukera aztertu ondoren erabaki zuen San Joan bidea kalean duen 407,1 m²-ko lursaila haren esku uztea bertan alokairurako etxebizitzak eraikitzeko. Bi aldeetako arkitektoek irizpideak adostu ondoren, udalaren partzelan atxikitako edo ilaran eraikitako bost etxe eraikiko dira.

Nasuvinsako etxebizitza departamentuko arduradun Berta Uriz Casaucauk jakinarazi duenez, proiektua egiteko Boa Arquitectos, S.L.P eta Enrique Kahle Olaso enpresari esleitu zaie. Dagoeneko kontratua sinatuta dute eta arkitektoak lanean ari dira. Urizek azaldu duenez, "oraingorik ez dakigu etxebizitzek



Etxeak eraikiko diren tokia. ARTXIBOA

zer tamaina izanen duten, baina, gehienez, 90 m² erabilgarri izanen dira". Aurreratu duenez, lanak aurtengo azken hiru hilabete iraunen dute, beraz, etxeak 2025erako eraikiak izanen dira.

"Lanak hasten direnetik jendea bizitzera sartu arte bi urte eta erdi pasako dira", azaldu du Urizek. Gaineratu duenez, etxeak eraikitzeak milioi bat euroko aurrekontua izanen du gutxi gorabehera. Etxebizitza horietan interesa duten arbizuarrei Urizek aholkatu die Nasuvinsako babestutako etxebizitzaren eskatzaileren erroldan izena emateko.

Enkantea

Kale Nagusiaren 43. zenbakian dagoen Agoonia edo Castejonen itxa udalarena da. Eraikinak 141 m² ditu. Arbizuko Udala Nasuvinsa enpresa publikoarekin batera aztertu zuen han alokairurako etxebizitzak egiteko aukera. Baina "egin zitekeen etxebizitza kopurua txikia zen, eta aurrekontua handia", azaldu dute udaletik. Horregatik, etxea enkantean salduko du. Udalak 151.971,44 euro eskatzen ditu. Eskaintzak apirilaren 10era arte aurkez daitezke udaletxean.



MUSIKAZ
BLAI

**Aritz
GANBOA
DE MIGUEL**

Artzaina / ARRUAZU

Ezetz
asmatu
zeintzuk diren
bere kantu
kuttunak
Piztu irratia!

15ean behin, ostiraletan,
10:30etan eta 14:30etan

Beleixe irrastian





Pentsiodunen mugimendua asteleheneroko aldarrikapenekin. ARTXIBOA

Pentsiodunek "berdintasunaren aldeko borrokan" bat egin dute

Mugimendu feministarekin hainbat borroka partekatzen dituelako, pentsiodunen mugimenduak harekin bat

SAKANA

Martxoaren 8an Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bat egingen du mugimendu feministarekin, elkarrekin "diskriminaziorik gabeko mundu bat" aldarrikatzeko. Azaldu dutenez, "feministekin batera borrokatzen ari garen aldarrikapenen zerrenda luzea dugu". Bat soldata berdintasuna da. "Lan bera edo baliokidea egiten denean, soldatek berdina izan behar dute. Feminizatutako lanen gutxiespenarekin bukatu behar dugu". Gaztigatu dutenez, "soldata arrakalak emakume langile pobreak eta erretiroan diru sarrera prekarioak dituzten adineko emakumeak sortzen ditu".

Emakumezko pentsiodunek nabarmendu dutenez, "pentsio duin baten alde ere borrokatzen gara". Pentsioa gutxienez 1080 eurokoa izatea aldarrikatu dute, baina zehaztuz "kopuru hori berrikusi" behar dela, "bizitzaren kostuaren errealitatera gehiago hurbiltzeko". Jakinarazi dutenez, Euskal Herrian 200.000 baino gehiago dira mila eurotik beherako pentsioak dituzten emakumezkoak, eta milaka eta milaka dira 700 eurora iristen ez direnak. "Ezin ditugu ahaztu pentsiorik jasotzeko eskubiderik ez duten adineko emakume guztiak", gaineratu dute.

Zaintzaz

Pentsiodunen mugimenduak "gizonen eta emakumeen zaintza partekatuko sistema bat" aldarrikatu du asteazkenean. "Per-

tsiona guztiendako zaintza sistema publiko unibertsal eta kalitatezkoa", aldarrikatu dute pentsiodunek, baina, zehaztuz: "zainketa lana lan gisa aitortu behar da, horrek dakartzan eskubide guztiak". Pentsiodunen mugimenduko kideek "pertsonek guztiak duintasunez zainduak izateko eskubidea izango duten sistema bat" nahi dute, "non emakumeek eta gizonen zaintzeko aukera izango duten. Zaintzak ezin dira ikusezin bihurtu edo gutxiesten jarraitu, eta erakundeek kontuan hartu eta duintasunez artatu behar dituzte, pertsonak zaindu gabe ez baitago bizitzarik".

Pentsiodunek ohartarazi dutenez, "gaur egun gure denboraren zati handi bat bizitza mantentzen ematen jarraitzen dugu, gure familia ingurunean seme-alabak, bilobak edo beste senide batzuk zaintzen. Lan isil eta ikusezina, halakotzat ere hartzen ez dena". Nabarmendu dutenez, "gure zaintza beharrak aldatzen ari dira eta gero eta arreta handiagoa behar dugun adin batean gaude. Eta zaindu dugun modu berean, zainduak izatea nahi dugu, eta zaintza nola izan behar duen erabaki nahi dugu".

Datuak ere eman dituzte. Nafarroan 142.000 kontribuzio pentsio daude eta haietatik 62.599 pentsio ez dira hilean 1.000 eurora iristen; horietako 44.087 emakumezkoek jasotzen dute. 75.000 nafarrek Bermatuko errenta jasotzen dute, 658 euro hilean (12 ordainketa).

Itaiak antolakuntza eta borrokarako deia egin du

Emakumezko langileek jasaten duten zapalkuntza gainditzeko forma bakarra sozialismoaren eraikuntza dela uste dute. Hori aldarrikatuko dute Emakume Langileen Nazioarteko Egunean

SAKANA

Itaiako, emakumezkoen antolakunde sozialistako kideen iritziz, "emakume langileen bizi baldintzak okerrera doaz egunez egun". Hori "sistema kapitalista eta haren dekadentziaren baitan ulertzen" dute. Izan ere, "gizarte kapitalistak, aurretiko ekoizpen harremanen ezaugarriak bereganatuz, geroz eta gehiago indartzen ditu emakumeon izaera debaluatua betikotzen dituzten erremintak, etekin ekonomiko eta politiko handienak ziurtatzeko". Itaiakoen iritziz, horren ondorioa "pobretzea" da, baita "jasaten dugun indarkeria matxistak gora" egitea "aipatutako debaluazioaren mesedetan".

Nabarmendu dutenez, "azaltzen ditugun fenomeno bat bera ere ez da modu independentean ematen, hau da, emakumearen zapalkuntzaren adierazpen hauek guztiak elkarren artean baldintzatzen dira. Horregatik iruditzen zaigu hain beharrezkoa emakume langileak egitura kapitalistaren barruan betetzen duen rolaren azterketa osatua egitea, horri ahalik eta modurik eraginkorrenean aurre egiteko".

Bi esfera

Horietan ikusten dute "emakume langileen aurkako zapalkuntza". Batetik, ekonomiari dagokion da. Emakumezkoek dituzten lan baldintzak okertu direla baieztatu dute Itaiako kideek, baita horiek zerrendatu ere: lan ordu partzialak, kontratuan onartu gabeko funtzioen ardura hartu beharra, ordaindu gabeko lanorduak... "Feminizatuak diren zaintza zein garbiketako sektoreetan, esate baterako, ratioak gehiegizkoak dira eta batez besteko soldata 900 eurokoa da. Horren bitartean, enpresen etekinak handitzen dira urtez urte".

Esfera politikoari dagokionez, "lan zama dela eta, emakume askok politikoki antolatzeke oz-



Itaiak azaroaren 25ean deitutako manifestazioa. ARTXIBOA

"ZAPALKUNTZARIK EZ EGOTEKO BERME EGONKOR BAKARTZAT JOTZEN DUGU ESTATU SOZIALISTA"

topokoak dituzte eta bake klausula bezalako mekanismo juridikoen ondorioz haien eskubideengatik borrokatzeke beldur dira". Itaiatik gaineratu dutenez, "egunerokoan gutxieneko zerbitzuekin lan egiten dugun langileok ez dugu grebarako eskubiderik, ezin dugulako greba bitartean %100eko gutxieneko zerbitzua bermatu". Guztiak gizartea isla duela gaineratu dute: "jasaten dugun egiturazko biolentziak zuzenean eragiten dio kaleetan jasaten dugun indarkeriari: jazarpena, bortxaketak, gutxiago izango bagina bezala sozializatuak izatea...".

Itaiako kideek ziurtatu dutenez, "gure bizitzak etengabe okertzearen erantzuleak beren irabaziak eta estatusa mantentzearen sistema kapitalista iraunarazten duten horiek dira: enpresariak, politikari profesionalak eta haien

konplize zuzen diren instituzio publikoak". Estatuan "goburu feministena dugun honetan, begi-bistakoa da gure egoeraren okertzea, hau hobetzeko duen ezintasuna eta borondate eza azaleratuz ahoa berdintasunez betetzen zaie bitartean". Itaiakoen ziurtatu dutenez, "euren lege eta proposamenak muga batzuekin talka egiten dute, eta muga horiek ezartzen dituen sistema gaindituz soilik gainditu daitezke". Aldi berean, kritikatu egin dituzte Espainiako Gobernuak hartutako hainbat erabakiren ondorioak: "seme-alabei jaten emateko supermerkatuetan lapurtu behar dutenen aurkako gero eta lege zigortzaileagoak, indarkeria matxistagatik zigorrak larritasunez murriztea haren aurkako lege berriak dituen hutsuneengatik edota estatuko laguntzak jasotzeko geroz eta burokratikoagoak diren tramitazioak ogi apur batzuk besterik ez jasotzeko".

Itaiak *Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki* leloa duen manifestazioan parte hartzerantz deitu du, Altsasuko Foru plazatik abiatuko da asteazkenean, 20:00etan.



Sakanako udal ordezkariak Arruazuko udaletxean. ARTXIBOA

Indarkeria estetiko eta bere ondorioak salatu dituzte udalek

Nabarmendu dutenez, "emakumeen askatasuna beren eskubideetan baitago eta ez haien irudian"

SAKANA

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, ibarreko udalek eta Sakanako Mankomunitateak *Anitzak gara, orain askeak* erakunde adierazpena onartu dute "emakume guztion aniztasuna eta ikusgaitasuna" aldarrikatuz. Aurtengoan toki erakundeek "emakumeen askatasuna etengabe baldintzatzen duten edertasun eredu femeninoetan oinarritutako genero estereotipoak" agerian utzi nahi dituzte, "gorputzen eta emakumeen aniztasunarekin bat ez datozen arau estetiko batzuk ezartzen baitituzte, askotan irrealak eta utopikoak direnak".

Udalek eta Mank-ek diotenez, "emakumeenganako presio estetiko sistema patriarkalaren eta kapitalismoaren arteko aliantzaren adibide da". Erakundeek presio estetikoaren bi alde nabarmendu dituzte. "Batetik, emakumeei beti gorputz perfektua lortzeko zain egoteko eskatzen zaie, beren buruekin etengabeko asegabatasuna sortuz. Bestalde, helburu horiek lortzeko milioika produktu kontsumitzea sustatzen da eta horrek negozio handi bat sortzen du emakumeen gorputzen inguruan".

Horren ondorio da "argaltasunean, perfekzioan eta betiko gaztetasunean oinarritutako gorputz femenino zehatz bat definitzen duten eredu horiek edertasun eredu hegemonikoa betetzen ez duten emakumeak ikusezin bihurtzen dituzte: adineko emakumeak, arrazalatuak,

lodiak, argalegiak, desgaitasuna dutenak, depilatzen ez direnak, burusoilak..." Gorpuzkera jakin horri buruzko mezuak etengabe sare sozial, publizitate eta entretenimendu industriaren bidez jasotzen ditugula nabarmendu dute. Horren ondorioz, "feminitate eredu normatiboa betetzen duten emakumeak bakarrik ikusarazten dira, eta horrekin batera haiek bezalakoak izatea lortzeko milaka produktu sustatzen dira".

Azpimarratu dutenez, "gorputzarekin lotutako genero estereotipoek bazterkeria indartzen dute hainbat esparru sozialetan eta harremanak oztopatzen dituzte, autokontzeptua, osasuna eta autoestimua kaltetuz, hau da, emakume eta neska askoren bizitzak kaltetuz". Erakundeek nabarmendu dutenez, "eskuraezina den gorputz baten idealen menpe jartzeak emakumeen bizitza ideal hori lortzeko borroka etengabe batera" bideratzen ditu, hau da, "beraien gorputzen, denboraren joanaren eta norberaren kontrako etengabeko borroka bat. Arrakasta sozialak, sexu-afektiboak, lanekoak eta abarrek lotura estua du edertasun kanonak betetzearekin".

Gaineratu duenez, "presio estetikoarekin" lotura zuzena dute "buru eta gorputz osasun arazo garrantzitsuek, esate baterako, elikadura jokabidearen nahasmenduak, bereziki gazteei eragiten dietena". Lodifobiak ere gaztigatu dute. Guztiari aurre egiteko konpromisoa hartu dute.

Dena aldatzeko zaintzak irauli nahi dituzte

Mugimendu feministak "denon bizitzak erdigunean" ibilbidea hasiko du martxoaren 8an, "Euskal Herriko Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioa ezaugarritzea" helburu duena. Feministak aktibatzerara eta prozesuarekin bat egitera deitu dituzte

SAKANA

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna asteazkenean ospatuko da. Hari begira, Sakanako mugimendu feministak "zaintza lanetan mugarrira" jarri du. Feminista sakandarrek "egungo zaintza erregimen kapitalista eta zisheteropatriarkala eraldatzeko asmoz, mobilizazio prozesu bati ekinen" diote. Azaldu dutenez, "borroka dinamika proiektua" da eta haren lehen mugarrira Martxoaren 8a izanen da. Gaztigatu dutenez, "zaintzarako eskubide kolektibo baten alde" egiten dute. "Pertsona guztiek bizi osoan zehar zaintzak askatasun, duintasun eta konpromiso baldintzetan emateko eta jasotzeko duten eskubideen alde" egingen dute feministek.

Mugimenduko kideek zehaztu dutenez, "hori mendekotasun egoeretatik baino askoz harago doa. Zenbat, nola eta nor zaindu nahi dugun erabakitze gaitasunaz ari gara; era berean, zaintzaren erantzukizunari pribilegiozko egoeretatik ihes ez egitea bermatzeaz ari gara". Azken horregatik, Sakanako mugimendu feministak nahi du zaintza "erantzukizun soziala bihurtzea, eta ez negozioa. Gizartea eraldatzeko neurriak bulkatu nahi ditugu, negozio izateari utz diezaion". Horretarako, ibarreko mugimendu feministak "zaintzaren sektorean lan baldintzak hobetzeko borroka ari direnekin indarrak batu" nahi ditu, baita "zerbitzu publikoen kalitatea defendatzen duten kolektiboekin" ere. "Aliantzak bulkatu nahi ditugu herri mugimenduekin eta dena aldatzeko zaintza sistema irauli nahi duten guztiekin". Hori lortzeko, feminista sakandarrek "aktibatzerara" deitu dituzte, "asanblada feministak aktiba ditzaten, antolatu eta prozesu honekin bat egin dezaten".



Sakanako mugimendu feministako kideak asteazkeneko manifestaziora deitzen.

"ZAINZAK EZIN DIRA IKUSEZIN BIHURTU EZTA HORIEKIN MERKANTILIZATZEN JARRAITU"

Egungo egoera

Sakanako mugimendu feministako kideen iritziz, "zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzeko. Ezin dira ikusezin bihurtu ezta horiek merkantilizatzen jarraitu". Beraien iritziz, "krisiak oraindik eztanda ez badu egin etxeko langileen esplotazioaren ondorio da, erakundeek eta familiek betetzen ez dituzten beharrik asetzen baitituzte. Lan baldintza negargarriekin, sektorea desaraututa eta langile migratu asko Atzerriartasun Legearen ondorioz diskriminazio egoeran daudelako". Egoeraren argazkia zehazteko, ibarreko mugimendu feministako kideek "gizartea krisian sakontzeko" faktoreak zerrendatu dituzte: "lanaren prekarizazioak eta langabeziak, pentsio baxuak, etxebizitzaren, gasolinaren eta oinarriko beharren garestitzea.

Ibarreko mugimendu feministako kideek ziurtatu dutenez, "etxeetan, lantokietan eta harremanetan langile klaseko emakumeak jarraitzen dugu zaintza sostengatzen dutenak izaten. Denboraren eta baliabideen pobrezia pilotzen jarraitzen dugu: lanaldi bikoitzak, zerbitzu publiko urri eta prekarioak, denera ezin iritsiz, eta bidean gure bizitzak immolatu".

Sakanako mugimendu feministako kideek gaztigatu dutenez, "gure diskurtsoak jabetu dira edukiz husteko. Guk ez dugu isilaraziko gaituen promesa faltzurik nahi". Horren adibide lirake, esaterako: edonork zaintzaren garrantziaz hitz egitea, zaintzaren krisia konpontzeko "azaleko soluzioak" proposatzea, konponbidea digitalizazio handiagoan bilatzea edo "ikuspegi 'komunitarioaz' abstraktuan hitz egitea, non zaintzaren feminizazioa eta familiarizazioa erreproduzitzen den".

Feminista sakandarrek prozesua abiatu dute asteazkenean Altsasuko Foru plazatik abiatuko den manifestazioarekin. Mobilizazioek *Denon bizitzak erdigunean* leloa dute.

EGITARAUAK

IRURTZUN

MARTXOAK 4 Larunbata

21:30 Emakumeen afaria eta Lorena Arangoaren ikuskizuna, Iratxoan.

MARTXOAK 5 Igandea

19:00 Perséfone Iluna Producciones konpainiaren antzezlaren emanaldia, kultur etxean.

MARTXOAK 8 Asteazkena

18:30 *Lehertzeaz gaude* Irurtzungo Emakume Taldearen kontzentrazioa. Ondoren, photocall. Foru plazan.

MARTXOAK 12 Igandea

18:00 Naroak taldearen kontzertua, Barazkigunen.

MARTXOAK 15 Asteazkena

18:00 Zinemara ateraldia, Foru plazan.

MARTXOAK 18-19**Larunbata/Igandea**

10etatik aurrera Berdintasunaren aldeko Tramankuluren Escape room III: Uriz Pi ahizpak eta liburu debekatua.

Taldeka eta txandaka, talde bakoitzean hamar lagun gehienez. Lagun bakoitzak 10 euro. izena emateko: martxoak 4, iratxon; martxoak 8, Foru plazan; martxoak 12, Barazkigunen; egunean bertan. Txandak: 10:00etan, 11:30etan, 13:00etan, 16:30etan, 18:00etan, 19:30etan; kultur etxean.

MARTXOAK 25 Larunbata

16:30 Emakume Taldearen 30. urteurrenaren inguruko kafe solasaldia, kultur etxean.

MARTXOAK 26 Igandea

09:30 Lilasterketan, Sakanako emakumeak martxan! X. edizioaren irteera. 16:30 Altsasura iritsi, Bentan. Altsasuko Foru plazan, amaiera ekitaldia. 18:00 Pantxika Lamur, Foru plazan. Irurtzundik altsasura.

ETXARREN

MARTXOAK 18 Larunbata

22:00 Arakilgo emakumeen afaria eta Lorena Arangoaren ikuskizuna,

Iratzarren.

Arakilgo Emakume taldeak antolatuta.

UHARTE ARAKIL

MARTXOAK 4 Larunbata

17:30 Piztu! EmakumeOn energia haurrendako antzezlaren emanaldia, udaletxean.

Gonbidapenak:

berdintasuna@sakana-mank.eus.

MARTXOAK 8 Asteazkena

18:00 *Denon bizitzak erdigunera* Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, plazan.

ARBIZU

MARTXOAK 6 Astelehena

18:00 Iratxe Retolazaren *Irakurbide feministak euskal literaturan* hitzaldia, udaletxean.

Literatura Gerdialdiak egitasmoaren barruan.

MARTXOAK 8 Asteazkena

Arbizu. Elkarretaratzea. *Denon bizitzak erdigunera* Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea. 18:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

MARTXOAK 5 Igandea

12:00-14:00 Txokolilla. *Berdintasunean hezteko gunea tailerra.*

Etxarri aranazko Udalak antolatuta.

MARTXOAK 8 Asteazkena

12:00 *Denon bizitzak erdigunera* Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, plazan.

MARTXOAK 31 Ostirala

19:00 *Amarau, irunez iraun* bertso eta dantza ikuskizunaren emanaldia, kultur etxean.

ITURMENDI

MARTXOAK 14 Asteartea

18:00 Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori* liburuaren inguruko solasaldia, udaletxean.

Literatura Gerdialdiak egitasmoaren barruan.

URDIAN

MARTXOAK 8 Asteazkena

18:15 *Denon bizitzak erdigunera* Sakanako Mugimendu Feministaren elkarretaratzea, plazan.

ALTSASU

MARTXOAK 3 Ostirala

18:00 Gazte agenda: LGTBI+ tailerra, Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatuta.

18:00 *Uholdeak* Uharteko Arte Garaikideko Zentroak, Nafarroako Kutxa Fundazioak eta La Caixa Fundazioak sustatutako programaren *Materialak amatu* erakusketaren mustutze ekitaldia, lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

19:00 Filmoteka Nafarroan: Helena Tabernaren *Nerabe* eta *La mujer de Lot* film laburren emanaldia eta zuzendariarekin solasaldia, lortia kultur gunearen areto nagusian.

MARTXOAK 4 Larunbata

19:30 *Aitzindariak* Xián Martínez eta Saioa Belarra dantzarien dantza ikuskizunaren emanaldia, lortia kultur gunean.

MARTXOAK 7 Asteartea

18:30 *M, ama*, eme*, ume** liburuaren aurkezpena, euskaraz, lortia kultur gunearen areto txikian.

18:30 *Emakume sortzaileak oholtzara!* Altsasuko Musika eta Dantza eskolako ikasleen kontzertua, lortia kultur gunearen areto nagusian.

MARTXOAK 8 Asteazkena

09:00-10:30 Emakumeen nazioarteko eguna: Jatorri aniztetako emakumeekin saioa, Gure Etxea eraikinean. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak Martxoaren 8aren harira antolatutako programaren barruan.

19:00 *Denon bizitzak erdigunera* Sakanako Mugimendu Feministaren eskualdeko manifestazioa, Foru plazatik.

20:00 Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki! Sakanako Itaiaren mobilizazioa, Foru plazan.



IRURTZUN Irurtzungo pintura tailerraren *Emakumeak zortzi eratan* erakusketa. *Martxoaren 6tik 31era. la tahona eta Bar la Moncloa* tabernetan.



UTZITAKOIA

ALTSASU *Uholdeak* programaren *Materialak amatu* erakusketa: Angela Moreno, Amaia Garaio Azqueta, Beruta, Oihana McGuinness Armendariz, Txaro Fontalba eta Zays Falcon artisten lanak. *Martxoaren 3tik 16ra.* astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara eta larunbat eta igandetan 18:00etatik 19:30era. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.

MARTXOAK 10 Ostirala

18:00 Gazte agenda: *M8 Anitzak gara, orain askeak* memoria jokoa, Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatuta.

MARTXOAK 12 Igandea

12:00 *Emakumeak eta musika, amets baten aldeko borroka* musika emanaldia, lortia kultur gunean. Altsasuko Musika eta Dantza eskola.

MARTXOAK 14-15 Asteartea/Asteazkena

18:00 Gaztelaniazko irakurle taldea: Marcela Serrano idazlearen *Diez mujeres* liburu, lortia kultur guneko erabilera anitzeko gelan.

MARTXOAK 17 Ostirala

18:00 Gazte agenda: *Rap Ezkutuak* musika tailerra, euskaraz, Intxostiapunta gazte gunean. Altsasuko Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatuta.

MARTXOAK 19 Igandea

12:30 Haize Berriak bandaren *Emakumeak musikaren gailurrean*

musika emanaldia, lortia kultur gunean.

MARTXOAK 25 Larunbata

19:00 Gazte agenda: *Musas y Fusas, más iguales, más libros* ikuskizuna, gaztelaniaz, lortia kultur gunean.

Altsasuko Udaleko Gazteria zerbitzuak antolatuta.

OLAZTI

MARTXOAK 4 Larunbata

19:00 *Abandonate mucho* Las XL konpainiaren antzezlaren emanaldia, kultur etxean. Olaztiko Udalak antolatuta.

Azaroaren 25aren harira jositako patchwork lana martxoan zehar Sakanatik ibiliko da: 2an, Hiriberri; 4an, Olazti eta Uhartea; 6an, Arbizu; 8an, Irurtzun; 10an, Urdiain; 11n, Ziordia; 12an, Lakuntza; 14an, Iturmendi; 17an, Bakaiku; 19an, Irañeta; 26an, Altsasu, eta 31n, Etxarri Aranatz.



Proiektua eginen duten arkitektoak, Berta Uriz Casaucau eta Javier Ollo Martinez etxebizitzak eraikiko diren tokia aztertzen.

Alokairurako 21 etxeak 3 urte barrurako eginak

Etxebizitzak 35 urtetik beherako gazteei, desgaitasunen bat dutenei edo beste premia sozial batzuk dituztenei zuzenduta daude. Eskaera gehiago balego beste 21 etxebizitza babestu eraikiko lirateke. Herrian erroldatutakoek dute lehentasuna

ALTSASU

Altsasuko Udalak Ualdera eta Kaltzada kaleen artean duen lur saila Nasuvinsa enpresa publikoari utzi dio bertan alokairurako etxebizitzak egin ditzan. Nasuvinsakoek ideia lehiaketa baten bidez proiektuaren oinarritzko ildoak zehaztu zituzten lehenik eta, ondoren, proiektuaren idazketa OFS Architects

enpresari esleitu zion. Proiektua abiarazteko aurreneko bilera egin zuten Berta Uriz Casaucau Nasuvinsako etxebizitza departamentuko arduradunak, proiektua idatziko duen arkitektoek eta Javier Ollo Martinez alkateak asteartean. Eraikina jasoko den tokia ere bisitatu zuten.

Urizek jakinarazi zuenez, arkitektoek 21 etxebizitza hartuko

dituen eraikinaren proiektua garagarrierako izanendute. Udal lizentziak eta beharrezko beste baimenen tramitazioan hiruzpalau hilabete pasako direla aurreikusten dute arkitektoek eta Urizek, beraz, "lanak urte akaberarako hastea espero da. 18 eta 24 hilabete arteko iraupea izanen dute. Lanak despeditu ondoren tramite batzuk egin

behar dira, lau hilabete edo. Gauza bat dela bestea dela 2026rako sartuko lirateke bizilagunak", azaldu du Urizek.

Otadiako urbanizazioaren aprobetxamenduen emaitza da etxebizitza horiek hartuko duen partzela. 2.287 metro karratuko azalera du, baina L itxurako eraikina jasotzeko 1.690 m² erabiliko dira, Ualdera eta Amandrea kaleetara ematen dutenak, orubearren hegoaldeko zatia. Ollok azaldu duenez, "etxebizitza guztiak energia eraginkortasun eta ingurumen kalitate handikoak izanen dira. Guztiak orientazio bikoitza eta haizeztatze gurutzatua izanen dute. Gainera, etxebizitza guztiak terraza, garaje plaza eta trastelekua izanen dute". 21 etxebizitzetatik 9 bi logelakoak (80 m²) izanen dira, beste 9 hiru logelakoak (90 m²), 2 gela bakarrekoak (60 m²) eta bat irisgarria. Horiek guztiak lurrazpiko garajea, beheko solairua eta hiru altuera izanen dituen eraikin batean egonen dira. Beheko solairuan udalak 596 m²-ko lokala izanen du. Hura jasotzeko 3.554.680 euro aurreikusi zituzten joan den urtean, baina inflazioagatik aurrekontua handiagoa izanen da.

Altsasuko Udalak etxebizitza eskaintzari buruzko inkesta zabaldu zuen 2021ean. 80 altsasuarrek erantzun zuten, baita zehaztu ere beraien premia zer motako etxebizitzak aseko lukeen. Eskaera zegoela jakinik pausoa eman zuen Nasuvinsak. Enpresa publikoak udalarekin sinatutakoaren arabera, partzelen beste aldean beste 21 etxebizitza egiteko aukera luke bost urteko epean. Bitartean, "proiektua lantzen ari garen honetan altsasuarrek Nasuvinsaren ba-

Etxebizitzak egiteko bulkada

Foru Erkidegoko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako bigarren presidenteorde eta kontseilari Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrenak eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministra Raquel Sanchez Jimenezek akordioa sinatu zuten otsailaren hasieran. Haren bidez Nafarroako Gobernuak 6.313.105 euro jasoko ditu Nasuvinsa enpresa publikoaren bidez alokairu sozialeko 158 etxebizitza eraikitzeko. Foru administrazioak bere Navarra Social Housing proiektua garatzeko bide beretik aurten guztira 13,8 milioi euro jasoko ditu. Nafarroako Gobernuak jasotako diru hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik atera da dirua.

Foru administrazioak jasotako lehen ordainketatik 1.003.635 euro Altsasun alokairurako eraikiko diren 21 etxebizitzetarako dira.

bestutako etxebizitza eskatzailleen zentsuan eman dezakete izena, hori ezinbesteko baldintza da babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko", argitu zuen Urizek.

Jolas parkea estalpean

Aurreko urteetan herriko jolas parkeak berritu ondoren, Altsasuko Udalak Zumalakarregi plazan dagoen jolas parkeari olanazko estalpea jarri dio. Lanak joan den astean despeditu ziren. Sei zutabek eusten diote jolas tokiaren gainean dagoen olona txuriari. Lanak Arquitectura Textil enpresak egin ditu 67.367 euroren truke eta udalak finantzatu du.





Arakilgo ikuspegia. ARTXIBOA

Kontzejuen populazioa %0,51 hazi zen 2022an

Udalerrietako populazioa, berriz, %0,46 hazi zen joan den urtean; haietan 18.995 sakandar bizi ziren. Ibarreko 16 kontzejuetan 1.372 pertsona bizi ziren, ibarreko biztanleriaren %6,74

DUELA 25 URTE...



Udaletxe berria

Olatzagutiko Udalak eraikina erostea eta hura udaletxe gisa erabiltzeko erabakia 1988an hartu zuen. Hasierako proiektuaren arabera eraikinaren erdia udaletxerako izanen zen eta beste erdia kultur etxerako. Proiektuak 90 milioi pezetako (540.910,9 euro) aurrekontua zuen. Gehiegizko inbertsioa zenez, kultur etxeara aurreragorako utzi zuten eta udaletxeko hiru solairuak egokitu zituzten. Udaletxe berriak publikoari atek otsailaren 26an zabaldu zizkion.

SAKANA

Sakana 16 kontzeju daude (Aizkorbe barne sartu dugu, nahiz eta administrazio egiturarik ez duen) eta guztien biztanleria kontutan hartuta, 2022ko ilbeltzaren lehen aurreko urtean baino zazpi pertsona gehiago bizi ziren. Ibarreko 20.367 pertsonetatik %93,26 (18.995 sakandar) udalerrietan bizi ziren, kontzejuetan, berriz, %6,74 (1.372 sakandar). 2017 eta 2020 urteen artean populazioa galdu ondoren joan den urtean gora egin zuen kontzejuetako populazioak. Sakanak 2022ko hasieran, aurreko urtearekin alderatuta, 94 biztanle gehiago zituen, %0,46ko igoera. Kontzejuetako populazioaren igoera handiagoa izan zen, %0,51.

Ibarreko zazpina kontzejuetan gora edo behera biztanleriak. Gora egin duten kontzeju guztien artean 31 herritar berri gehiago

Biztanleria

Udalerria / Kontzejua	Biztanleria udalerrian	Biztanleria kontzejuan
Arakil	967	
Egiarreta		84
Ekai		37
Errotz		67
Etxarren		159
Etxeberri		61
Hiriberri Arakil		118
Ihabar		129
Izurdiaga		169
Satrustegi		55
Urritzola		17
Zuhatzu		44
Aizkorbe		27
Irurtzun	2.299	
Irañeta	167	
Uharte Arakil	791	
Arruazu	106	
Lakuntza	1.283	
Arbizu	1.124	
Ergoiena	373	
Dorrao		119
Lizarraga		168
Unanu		86
Etxarri Aranatz	2.506	
Lizarragabengoa		32
Etxarri Aranatz	2.474	
Bakaiku	355	
Iturmendi	420	
Urdiain	636	
Altsasu	7.504	
Olatzagutia	1.490	
Ziordia	346	
GUZTIRA	20.367	1.372

dira: Aizkorben eta Etxarrenen 6 gehiago, Egiarretan eta Dorraon 5, Zuhatzun, Satrustegin eta Lizarragan 3. Populazioak behera egin duten zazpi kontzejuetan 24 herritar gutxiago daude: Errotzen eta Ihabarren 8 gutxiago, Urritzolan, Etxeberrin eta Ekain 2 eta Unanun eta Lizarragabengoa bana. Beste bi kontzejuak zuten herritar kopuru bera zuten, Izur-

diaga eta Hiriberri Arakil dira herri horiek.

Kontzejuen 2022ko populazioa 1999koarekin konparatuz gero, Arakilgo biztanleria %10,01 hazi da. Hau da, 88 herritar irabazi ditu. 23 urte horietan Ergoienak, berriz, populazioaren %22,45 galdu du, 108 biztanle gutxiago ditu. Lizarragabengoari dagokionez, tarte horretan biztanle kopuru bera mantendu du.



KATTUKA HAUR ESKOLA

Zerohiru Hezkuntza Proiektuaren ardatz nagusiak

Ekintza autonomoaren balioa

Garai honetan, berebiziko garrantzia dauka benetako autonomiaren garapenak; barreneko senak bultzatzen duena.

Haur txikiarengan ere, ezinbestekoa ikusten dugu haien berezko jarduerak, eskaini diezaieken plazerra deskubritzea. Hau garatu dadin, haurrak egoera egokietan jarduteko aukera izatea behar du. Jarduera hau haurarentzat esanguratsua izateko, ezinbestekoa da bere inizatibatik jaiotzea, eta honetarako mugimendu eta jolas librean jardutea garrantzitsua da.

Heldu erreferenteak, hemen badu zer esanik. Alde batetik, ez dago modu zuzenean egindako eskuhartze bat, zeharkakoa baizik. Oinarrian, hiru modu desberdinetan egiten dena:

- Haurraren gaitasunen baitan helduak egiten duen egoera eta material eskaintza.
- Haur bakoitzaren lorpenen (motoreak, kognitiboak, komunikatiboak...) errespetua.
- Haurraren ekintzaren aurrean heldu erreferenteak egiten dituen komunikazio adierazpenak.

Oinarritzko afektuzko harreman baten balioa

Haurraren ordurarteko erreferentziazko pertsonak jolas espaziotik ateratzen hasten direnean, funtsezkoa da haurrari den denboran zehar egonkorra eta iraunkorra izango den heldu batekin harreman afektiboa eraikitzeak aukera eskaintzea. Harreman hori, arreta pertsonalerako eguneroko jardueretan egiten da nagusiki, eta jarduera horiek, ahalik eta modu indibidualiza-



tuenean egiten dira. Harreman afektibo horretan, helduak haurraren eskariari bere neurrian erantzuten dio eta haurra egoera bereganatzera bideratzen du.

Bere burua eta inguruaren konzientzia hartzea ahalbidetzearen garrantzia

Denboraren erregularutasuna eta espazioaren egonkortasuna hartzea ditugu kontuan. Horiek dira norberaren konzientzia hartzen errazten duten baldintzetako batzuk. Zaintzaz arduratzen den pertsona heldua, haurrak subjektu aktiboa izan dadin saiatzten da harekin harremanetan jartzen den bakoitzean. Haurra ez da inoiz objektutzat hartzen, subjektutzat baizik. Honek, helduarengan sortzen duen eraginaz konziente izan behar dugu, nolabait baldintzatu egiten delako gure eskuhartzea, haurraren beharra errespetatu nahi badugu.

Eguneroko arretan, haurrari nor den ulertzen laguntzen zaio; zer gertatzen zaion, zer egiten dioten eta zer egiten duen, nor arduratzen den berataz eta zer gertatuko zaion berehalako orainaldian.

Haurraren ongizatea; fisikoa eta emozionala

Eskolako printzipio garrantzitsuenetarikoa da haurren ongizatea bermatu behar dugula, gure esku dagoen guztian. Jakin badakigu, bizi oreka batek, eragina duela haurraren osasunean eta horregatik, oreka hau eskolan mantentzea ezinbestekoa egiten zaigu.



Kattuka haur eskolako ordutegi eta zerbitzuak

Haur Eskola 7:30etatik 16:30etara zabalik dago eta familia bakoitzak aukeratzen du ordutegia haien beharren arabera. Eskolatze zein jangela tarifak, errentaren arabera dira. Gaur egun, errenta baxuek eskolatzea doakoa dute.

Aurrematrikula epea: martxoaren 6etik 17era. Matrikula epea: maiatzaren 18tik 25era.

Arbizu eta Lakuntzako Haur Eskola
Uhalte kalea z/g. 31839 Arbizu
948567009
info@kattuka.com
www.kattuka.com

2023-2024 Ikasturtea
Aurrematrikula
Martxoaren 6tik 17ra

Matrikula
Maiatzaren 18tik 25era



TXIOKA HAUR ESKOLA

Hezkuntza garapenaren lehen urratsak

Txioka Haur Ikastola Iñigo Arizta Ikastolako 0-16 hezkuntza proiektuaren lehen urratsa da; hau da, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari dagokiona. **Herri-rik eta herriarentzat** sortutako proiektu hau Ikastolako guraso elkarrekin bideratzen du.

Euskara eta euskal kulturaren transmisioa ardatz izanik, murgiltze-ereduan oinarritutako hezkuntza proiektua da, hau da, ikaslea euskaldun eleanitz konprometitua izan dadin, antolaketa %100 euskalduna da, ikaslearen hezkuntza eskaintza guztia, gela barruan zein kanpoan egiten duguna euskarazkoa izan-

nik. Gainera, euskal curriculumean oinarritutako eskaintzan oinarritzen da gure murgiltze eredua. Izan ere, ikaskuntza prozesua hizkuntzatik datorrela frogatua dago; honela, **hizkuntzaren trataera integrala** da gure proiektuaren oinarri.

Hori guztia **aniztasunaren etengabeko begiradatik** egiten dugu, aniztasuna baita gure beste ardatz nagusietako bat. Hori dela eta, gure hezkuntza proiektuaren beste indarguneetako bat umearen garapen osoa bere oinarritzko heziketa urte guztietan zehar modu koherente, integral eta aniztasuna oinarri izanda

egiten dugu **orientazio departamentuaren elkarlan eta aholkularitza sendo baten bitartez**. Lankidetzeta eta elkarlan hori norabide bikoitzean gauzatu dugu. Alde batetik, hezkuntza prozesuan parte hartzen dugun profesional guztiekin dagoen lankidetzeta sistematikoaren bitartez, eta bestetik, familiekin eraikitako elkarlanaren bitartez.

0-16 ibilbidearen bukaeran ikasleak etorkizuneko gizarteak aurkeztuko dizkion erronkei modu eraginkorrean aurre egiteko beharrezkoak izango dituen **gaitasunak** era kolektiboan definituta eta jasoak ditugu **ikaslearen irteera profilean**; eta elkarlanean irakaslea bidelagun izanda, gaitasunak garatzen joaten da haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Hezkuntza proiektuaren protagonistak ikaslea izanik, **haurra**



horren erdigunean kokatzen dugu. Bere garapen integrala aurrera eramateko bidea elkarrekin eraikitzen dugu hezitzaileak **bidelagun** izanda eta ikaslearen ongizatea helburu izanik. Honela, besteak beste, garapen kognitibo, sozial, afektiboa eta komunikatiboa garatzen ditu ikasleak hezitzaileek probestutako **segurtasun eta konfidantza giro** batean.

Hezkuntza bidea eraikitzeko beste ardatz nagusi bat **gurasoak eta familiak** dira. Hori dela eta, haiekin harreman estua izatea sustatzen eta egunerokoan lantzen dugu familia eta hezitzaileen arteko lankidetzeta harreman horretatik haurren garapen kognitibo, biologiko eta emozionala modu integralean eta haurren erritmoetara egokituz emateko.

Haurren **garapena modu autonomoan** izan dadin, **deskubritzeko eta esperimentatzeko askotariko** espazio antolatua eskaintzen dizkiogu, egunerokotasunean ikertzeko premia sortuz, bizipen desberdinetatik garapena eman dadin. Horretarako, eskaintza desberdinak diseinatzeaz gain, ezinbestean eguneroko espazioak bere prozesura egokituak ditugu: jolasgune antolatu eta ordenatuak, haurren interesak pizteko txoko desberdinak, naturarekiko

harremana bermatzen duten egituratu gabeko espazioak...

Beraz, **etorkizuneko herritar** euskaldun konprometitua, autonomoa, arduratsua, enpatikoa, komunikatzailea, sortzailea, parte hartzailea, ahalegina egiten duena eta egoera guztiekiko jakin mina duena da gure heziketa proiektuak **hezten duen ikaslea**.

Zatoz GU ezagutzera! Zatoz Txioka Haur Ikastolara!

GU IKASTOLA!



ESKOLARAKO MATERIAL PERTSONALIZATUA

MUNDU KORPORATIBOJA, ABENDUAK, ZIGURIAK, KANDEKORAK, OKROAK, KAMISETAK...

Eskatu aurrekontua konpromisirik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo** 619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus



TXIRINBULO

Haurren erritmoak errespetatzen ditugu

0-3 urte

Mugimendu librearen garrantzia azpimarratzen dugu eta horretarako eskolako altzariak lagungarriak dira. Zainketa momentuei garrantzi handia ematen diegu, haur bakoitzaren erritmoak errespetatzen ditugu eta material ez-egituratua erabiltzen dugu beren kreatibitateari garrantzia emanez. Honela, gure haurrei euren garapenaren gidaria izatea ahalbidetzen diegu.

Hezkidetzak

Gure neska eta mutilen artean berdintasuneko hezkuntza bat bideratuz, zeinean autoestimua,

sentimenduak, errespetua eta berdinen arteko tratua onak sustatzen ditugun. Berdinen arteko jazarpenak, genero ikuspuntuak indarkeria eta gaur egungo neska eta mutilen arteko bidegabekeriak saihesteko.

Patioa

Kanpoko espazioari garrantzi handia ematen diogu, gelaz kanpo dagoen beste materialarekin esperimentatzeko.

Ohiturak

Herriko ohiturak sustatzen ditugu, beraz haurrak herriko

ohituretan murgiltzen dira, eskolatik festa herrikoietan parte hartuz.

Psikomotrizitatea

Prozesu psikiko eta motrizen harremana adierazten du. Sententzio, mugimendu, jolas eta irudikapenaren bidez pertsonaren osotasuna lantzen duen diziplina hezitzailea da.

Plastika

Proposamen berritzailetatik abiatuta eta material sorta aberatsa eskainiz, esperimentazioa, irudimena, sormena eta abar sustatzen ditugu.



Aurrematrikula: martxoak 6 - 17
Matrikulazioa: maiatzak 18 - 25

2021, 2022 eta 2023an jaioetako haurrak
16 ASTE - 3 URTE
 Instalakuntza berriak
 Ordaintzeko tarifa Errenta aitortpenaren arabera

Ordutegi zabala
7, 6 eta 4 ordutako egonaldiak

Jantoki zerbitzua

948 56 44 22 - txirribulohaurreskola@altsasu.net
 Alzania kalea, 24 ALTASU



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Eleaniztasunak onurak ditu

Sakanako Mankomunitateak D eredia hautatzeko arrazoiak arrazoiak eman nahi dizkie Sakandarrei zalantzarik izan ez dezaten.

- Euskaraz ez dakiten guraso askok hautatu duten eredia da.
- Milaka haur eta gaztek ikasi dute D eredian.
- Gehiago dira euskara eskolan ikasi dutenak, etxean ikasi dutenak baino.

- Hizkuntzak barneratzeko unetik aproposena haurtzarora da.
- Euskara umearen etxeko hizkuntza ez izatea ez da traba euskaraz ikasi eta etxeko lanak egin ahal izateko.
- D ereduko haurrek gaztelania ere ongi ikasiko dute, eskolaren bidez zein inguruaren eraginez.
- Eskolan ikasi ez dituen beste hizkuntza batzuk helduaroan ikasteko erraztasun gehiago

dituzte haur eleanitzek.

- D eredian ikasten dutenek aukera gehiago izanen dituzte eremu professionalean.
- Euskara jakiteak euskaraz ingurua sakonago ezagutu eta ulertzeko aukera ematen du.
- Euskarak (harreman sozialak, kultur produktuak, aisialdiko jarduerak...) euskal komunitateko kide egiten gaitu.




ZURE PUBLIZITATEA HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
pubil@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



IHOTEA



ALTSASU



HIRIBERRI ARAKIL - UTZITAKOA



ZIORDIA



OLATZAGUTIA



ALTSASU



OLATZAGUTIA

FUTBOL PREFERENTEA

21. JARDUNALDIKO EMAITZAK
 Altsasu - Salesianos **2-2**
 Lagun Artea - Etxarri Aranatz **1-2**

SAILKAPENA
 PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Amigo **49**
10 Altsasu **28**
17 Etxarri Aranatz **13**
18 Lagun Artea **9**

HURRENGO JARDUNALDIA
 MARSUAK 4, LARUNBATA
16:30 Etxarri - Altsasu (*San Donato*)
17:30 Lezkairu - Lagun Artea (*Soto Lezkairu*)

Etxarri-Altsasu derbia, San Donaton
 Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek aurreko larunbatean Lakuntzan jokaturako derbiari beste derbi sakandar batek hartuko dio lekukoa, Etxarri eta Altsasuk larunbatean San Donato zelaian jokatu dutenak. Etxarriarrek animoz gainezka daude, Lakuntzako partida irabazi eta gero, eta Altsasuk ere garaipena lortu nahiko du.

Lagun Arteak Lezkairu du arerio
 Lagun Arteak azkeneko postutik ateratzeko urrezko aukera galdu zuen asteburuan, Etxarriren kontra galdu eta gero. Larunbatean partida zaila du sailkapenean seigarren den Lezkairuren kontra.

EMAKUME PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA
 Universidad de Navarra - Altsasu **6-1**

SAILKAPENA
 EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA
1 Mutilvera B **39**
7 Altsasu **16**

HURRENGO JARDUNALDIA
 MARSUAK 4, LARUNBATA
16:30 Altsasu - Mutilvera B (*Dantzaleku*)

Altsasuk Mutilvera liderra hartuko du
 Altsasuk lidergoagatik borrokan dagoen Mutilvera du aurkari. Asko dago jokoan.

FUTBOL ERREGIONALA

19. JARDUNALDIKO EMAITZA
 Altsasu B - Amaya **3-1**

SAILKAPENA
 ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA
1 Beti Onak B **48**
11 Altsasu B **19**

HURRENGO JARDUNALDIA
 MARSUAK 5, IGANDEA
11:00 Beti Onak B - Altsasu B (*Peritos*)

Altsasu Beti Onak liderraren kontra
 Altsasuk liderraren kontra partida zaila du aurretik. Atarrabian jokatu dute.



Aurten Olaztik hartuko du Altsasun jokatu ohi zen jardunaldia, lortuako plazako obrak direla eta.

Hamazazpi talde sakandar Nafarroako Herri Kiroletan

HERRI KIROLAK Txapelketa igandean hasiko da, Atarrabian, eta bi jardunaldi Sakanan jokatu dira, Olaztin eta Etxarri Aranatz. Guztira 52 taldek parte hartuko dute Nafarroako Herri Kirol Jokoetan, 41 proba konbinatuetan eta 11 sokatiran

Maider Betelu Ganboa SAKANA
 Ihoteen ondoren martxan jarriko dira Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol Institutuarekin batera antolatzen dituen XXXVI. Nafarroako Herri Kirol Jokoak. Igandean, marsuak 5, jokatu da lehen jardunaldia, Atarrabiako Paz Ziganda ikastolan, 10:30etik aurrera. Bigarren jardunaldia Olaztik hartuko du,

marsuaren 12an; hirugarrena Antsoainek, marsuaren 19an; laugarrena Etxarri Aranatzek, marsuaren 26an; eta bosgarrena eta finala Igantzik, apirilaren 2an.

Nafarroako Herri Kirol Jokoe-tan hiru kategorietako neska-mutilek parte hartuko dute, talde mistoetan: kimuak (11-12 urte), haurrak (13-14 urte) eta kadeteak

(15-16 urte). Bi txapelketa jokatu dira, sokatira eta proba konbinatua. Azken honetan lokotx biltzea, zaku lasterketa, txingak, korrika eta trontza jasotzen dira, azken hau kimuen mailan izan ezik.

Guztira 52 taldek hartuko dute parte Nafarroako Herri Kirol Jokoetan, horietatik 41 proba konbinatuetan eta 11 sokatiran.

Sakanako ordezkari Iñigo Aritz eta Andra Mari ikastole-tatik sortutako taldeek osatzen dute, eta entrenatzen ibili dira azken asteetan, euren soinketa irakasle Mikel Senar, Jon Lagos eta ohiko laguntzaileekin, Jexus Senar, Arza, eta Olabide anaiak tartean. Sokatira taldeak trebatzez Nerea eta Belen Lizarraga ahizpak arduratu dira, ohi bezala, Arbizuko kiroldegian.

Proba konbinatua
 Kimuen mailako konbinatuan 27 talde lehiatuko dira, multzoka. Jendetsuena izango da. Andra Mari 6 talde ditu, Antsoainek 6, Iñigo Aritzak 3, Paz Zigandak 3, Joakin Lizarragak 2, Igantzik 2 eta gainontzeko taldeak Araxes, Basaburua eta Berriozar izango dira. Hurren mailan 9 taldek parte hartuko dute, Andra Mari-ko 3 taldek tartean. Antsoain (2), Araxes, Basaburua, Berriozar eta Igantzi izango dira besteak. Kadeteetan 5 talde lehiatuko dira: Andra Mari, Antsoain, Araxes, Berriozar eta Igantzi.

Sokatira
 Sokatiran hurren mailan 6 talde lehiatuko dira, Andra Mari ikastolako bi, Antsoain beste bi, Araxes eta Berriozar. 480 kiloko pisuan. Kadeteen mailan 540 kiloko pisuan jokatu da txapelketa eta 5 talde lehiatuko dira: Andra Mari Hotsein, Iñigo Aritz, Antsoain, Araxes eta Berriozar Antsoberri.



LA LIGA SANTANDER

Irurtzun, Lehen Maila epaitzen

FUTBOLA Futboleko Lehen eta Bigarren Mailen ondotik RFEF federazio mailak daude. Imanol Irurtzun Artola ihabardarra RFEF Lehen mailako arbitroa da, eta maila nagusietan laugarren arbitro izan daiteke. Otsailaren 20an Barcelonak eta Cadizek Camp Nou jokaturako partidari hala ibili zen. Irurtzun Sergio Gonzalez eta Xavi Hernandez entrenatzaileen artean.

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Larunbatean Espainiako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu zen Gavàn (Bartzelona). June Kintana Larraza disko jaurtitzailarendako hitzordu garrantzitsua zen. 2017tik 2022ra sei urre lortu eta gero, bide berean jarraitu nahi zuen. Baina bakai-kuarrarendako txapelketa oso ezberdina izan zen, "psikologikoki oso gogorra". Ez zuen zuen bere maila eman eta deseroso lehiatu zen, bere ohiko markengatik urrun eta egoerari ezin buelta eman. Azkenean Espainiako txapeldunordea izan zen (50,43 m), Leongo Errendimendu Altuko Teknikazio Zentroan berarekin trebatzen den Andrea Alarcónen atzetik (51,85 m).

Aurreko denboraldia zure marka pertsonala gaindituz (57,83 m) despeditu zenuen. Aurten, txukun hasi zinen. 52,47 m Aragoian, 52,02 m Iruñean, Nafarroako Txapelketa irabaziz... Zer gertatu zitzaizun Espainiako Txapelketan?

Nire buruari presio handia sartu niola. Martxoaren 11n eta 12an Europako Jaurtiketen Txapelketa jokatu da Leirian (Portugal). Bertara joateko aukera handiak nituen, entrenamendu onak egin ditut, negu oso ona, eta nire burua oso ongi ikusten nuen. Espektatiba handiekin joan nintzen Espainiako Txapelketara, baina presio hori antsietate moduko batean bilakatu zitzaidan eta gorputzak esan zuen: "Ez June. Bide honetatik ez zoaz inora". Eta guztiz blokeatuta geratu nintzen.

Txapelketa askotan lehiatu zara. Aurretik halakorik gertatu al zaizu?

Ez, eta alde horretatik ere pixka bat harrituta nago. Txapelketetan ahalik eta hobekien egin behar dudala da normalean pentsatzen dudana, eta disfrutatzea. Horiek dira nire motibazioak. Baina larunbatean ez nituen bete. Europakorako marka ona egitea nuen buruan. Eta nire gorputzaren erantzuna antsietate zentzugabeko bat izan zen. Gorputza blokeatuta geratu zitzaidan. Beste esperientzia bat izan da, eta gauza asko ikasi ditut. Orain udako txapelketa beste ikuspuntu batetik prestatuko dut: egiten dudana disfrutatzea, eta ez hainbeste marka edo gutxieneko batera iristea pentsatzea.

Oso zaila da marka horiek buruan ez izatea, Europako eta Munduko Txapelketetarako eta Olinpiar Jokoetarako eskatzen dituztelako.

"Marka onaren antsietateagatik blokeatuta geratu nintzen"

JUNE KINTANA LARRAZA DISKO JAURTITZAILEA

DISKO JAURTIKETA Europako Txapelketako presioak Espainiako Txapelketan bere onena ez ematea ekarri zion atletari. Asko ikasi duela dio, eta aurrera egiteko gogotsu dago



June Kintanarendako Espainiako Txapelketa egun oso gogorra izan zen. UTZITAKOA

Bai. Espainiako Atletismo Federazioa haserretu da, udako nire markak berez Europako Txapelketarako hautatua izateko baliagarriak zirelako, gutxienekoa 56 metrokoa zelako. Baina orain esan dutena da txapelketa hurbiltzen den heinean sasoi betean gaudela erakutsi behar dugula, eta ez naute hautatu. Gertatu zaidana da gure entrenamenduetan planifikatua genuena pixka bat beranduago hasi dela agertzen. Denboraldi hasieran nire gorputza ez zegoen erabat prest teknika automatikoki berez ateratzeko; Espainiako Txapelketa baino bi aste lehenago gertatu zen hori. Baina tarte horretan ez zegoen beste txapelketarik eta Espainiakorako presio handia sortu nuen. **Zeinen arraro sentituko zinen.**

Oso. Urduritasuna beti sentitu izan dut, baina kontrolatzen jakin izan dut. Baina larunbatean gainezka sentitu nintzen. **Gavàn oso jaurtiketa arraroak egin zenituen. Tartean hiru baliogabetu.** Hamar jaurtitzailen ginen. Hasieran hiru jaurtiketa egiten ditugu eta lehen zortzi onenek egiten dute aurrera. Finalean beste hiru jaurtiketa ditugu, hobekuntza

"AURRERA JARRAITUKO DUT, BAIKOR, LANA ONGI EGINA DAGOELAKO. ATERAKO DA"

rako. Lehen kortea justu gaintu nuen, zazpigarren, bi jaurtiketa baliogabe eta 40,9 metroko jaurtiketa txar batekin. Finalean jaurtiketa luzexka bat baliogabetu zidaten sektoreetatik atera zelako. Zortea ere ez nuen alde izan. Egundarra izan zen. Beraz, bigarren izatearekin pozik nago, benetan, askoz ere okerragoa izan zitekeelako. Jakin nuen nola edo ahala zuzentzen, eta zilarri ezin zaio meritua kendu. Horrela, datorren urterako badut erronka, berriz lehena izatea. Gainera, Andrea Alarcon lagunak irabazi zuen, eta beragatik ere oso pozik nago, txapelketa oso ona egin zuelako.

Denboraldi batetik bestera horrenbeste kostatzen al zaizue sasoi berreskuratzea?

Bai, oso atleta gutxik hasi izan dute denboraldia aurrekoaren markekin. Lehiaketa erritmoa hartzea beharrezkoa da, gutxi-naka hobetzen joatea, arintasun sentazioa berreskuratzea... ni sasoi horretan pixka bat beranduago jarri nintzen, eta txapelketan ez nuen ongi kudeatzea lortu.

Honek alde psikologoa gehiago lantzeko beharra sortu al dizu?

Urteak daramatzat psikologoarekin lanean. Aurretik dugun lana da aurkitzea ea zein puntutan egin nuen akatsa, onartzea gizakiak garelako eta gauzak beti ezin zaizkigula ongi atera, eta pentsatzea hurrengoan hobeki egingo dudala. Aurrera jarraitu eta egindako lanean konfiantza izan. Udako denboraldirako positiboki pentsatzen eta baikor izaten jarraituko dut, orain arteko lana ongi egin dagoelako. Aterako da.

Neguko denboraldia bukatu al duzu?

Igandean Tolosan kontrol bat dago eta larunbateko zapora txarrenekin ez geratzeko bertan parte hartuko dudala erabaki dut. Ea disfrutatzen dudana eta ongi ateratzen den, ni lasai geratzeko eta udako denboraldia animoz prestatzeko.

Udako denboraldia nola dator?

Ez dut helbururik jarri nahi. Aurten Aire Libreko Jaurtiketen Mundiala jokatu da, baina zaila dut, marka oso onak eskatzen dituztelako. Nahiago dut epe motzean pentsatzea: ekainean ligarekin hasi, martxa hartzea, ea nazioarteko meeting edo txapelketara batera joateko aukera lortzen dudana, uztaileko Espainiako Txapelketa...



Maria Ordoñezek eta Izaskun Beunzak lehia oso estua izan zuten. Denbora berean iritsi ziren helmugara, baina lehena nagusitu zen.

Emozio handia Dantzalekun

Nafarroako Kros Laburrean Diego Miguelena gailendu zen bere taldekide David Perezen eta Israel Arbizuren aurretik. Emakumezkoetan Izaskun Beunzaren eta bere taldekide Maria Ordoñezen esprintak erabaki zuen txapelketa, bigarrenaren alde

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Sekulako giroa eta korrikalari eta ikusle mugimendu handia egon zen Dantzalekun larunbat goizetik hasita. Hiru txapelketa jokatu ziren aldi berean. Batetik, Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Nafarroako Banakako Atletismo Txapelketak: 18, 16, 14, 12 eta 10 urtez azpiko kategorietan. Bestetik, 37. Altsasuko Kros herrikoia, eta hirugarrenik Nafarroako Kros Laburra. Azken biak batera jokatu ziren, distantzia bera baitzuten (4,5 km). 2.000 korrikalari zeuden izena emanda Nafarroako Atletismo Federazioan, eta horiei kros herrikoian animatu zirenak gehitu zitzaizkien. Bajaren batzuk egon ziren, baina hala ere korrikalari asko eta asko bildu ziren Dantzalekun.

Dantzaleku Sakanak bi zirkuitu prestatu zituen, laburragoa Usolarrainen, kategoria txikiendako. Luzeagoa zena Dantzalekuko futbol zelai zaharretik Dameroan sartzen zen. Altsasuko Kroserako eta Nafarroako Kros Laburrerako bi zirkuituak batu zituzten, eta lasterketa azkar, eder eta ikusgarria eskaini zuten, korrikalariak beraiek ziotenez Altsasukoa "benetako krosa" baita. Beste behin, Altsasuko Krosak ez zuen huts egin. Zirkuitua, gainera, ikusgarri zegoen, eta hotza bai, baina euria egin ez zuenez, gustura ibili ziren korrikalariak. Ez zegoen lohi gehiegirik, bezperako izotzaldiak putzuak lehortu zituelako.

Sakandarrak Altsasuko Krosean

Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa, Mastersa eta 37. Altsasuko Krosa (4.550 m)

• Gizonak

1. Diego Miguelena	15:10
3. Israel Arbizu	15:15
16. Iban Sobredo	16:14
23. Sergio G. De Eulate	16:44
37. Mikel Berdud	17:20
55. Jorge Iradi	19:06
70. Ismael L. de Goikoetxea	20:15
85. Juantxo Azurmendi	22:19
86. Santi Agirre	22:32
87. Aingeru Azazeta	22:35

• Emakumeak

33. Maria Ordoñez	17:14
35. Izaskun Beunza	17:14
68. Leire Estarriaga	20:10

Hiru Herriko korrikalariak hartu zuten aurrea hasieratik. Diego Miguelena, David Perez, Israel Arbizu etxarriarra, Markel Ziriza... eta haiekin batera Ayrton Azcue, Alvaro Alduan... faboritoen taldetxo osatu zen berehala. "Hasieran batera ibili gara, baina bigarren itzulia azkarragoa izan da. Sentsazio onekin nengoen, aurretik jarri naiz, tiraka. Tarte ateratzen hasi naiz eta helmugaraino aldea mantendu ahal izan dut" azaldu zuen irabazleak, Hiru Herriko

"Dantzalekuko zirkuitua Nafarroako onena da"

ISRAEL ARBIZU ALBERTO HIRU HERRIKO KORRIKALARIA

Nafarroako Kros Laburreko Txapelketako hirugarrena sailkatu zara eta Dantzalekuko podiumera igo zinen. Espero al zenuen?

Zintzoki, ez. Oso-oso kontentu nago Dantzalekun egin nuen lasterketarekin. Hiru Herriko Diego eta David taldekideekin podiumean egongo nintzenik ez nuen inola ere espero. Eta hiru taldekideek tripletea egingo genuenik ere ez zen gure buruan sartzen. Egia esan, harrituta geratu ginen. Espezialista onak falta ziren, baina hala ere bazeuden krosean korrikalari onak direnak, adibidez Beste Iruñako Abule Esteban, Ardoiko Ayrton Azcue, Marathoneko Pablo Lassa, Hiru Herriko Miguel Aristu gure taldekidea... eta beste hainbat. Korrikalari onak zeuden, eta



beraz, errendimenduari eta podiumean sartzeagatik oso-oso pozik nago. Berrit diotsut, ez nuen espero.

Dantzalekuko zirkuitua zoragarri zegoen.

Dantzalekuko zirkuituaz zer esango dizut, zalantzarik gabe Nafarroako onena dela. Argi eta garbi. Gainera, espezial zegoen. Lehorrago egongo zela uste nuen, baina hain justu proba jokatu aurreko egunetan elurra egin zuen, elur pixka bat, eta bikain geratu zen, ezin hobe. Larunbata, gainera, korrika egiteko egun bikaina izan zen. Goizean goiz hotza egin zuen, baina gure proba 11:40ean hasi zen eta ordurako bikain zegoen. Ibilbidean denetatik zegoen: lokatz askoko guneak eta toki lehorrak. Dantzalekuko zirkuitua ikusgarria da.

Aurrekoan Axi Estarriagarekin aipatu genuen zirkuitu hau Espainia mailako probetarako sekulako zirkuitua izan daitekela. Elgoibar, Lasarte... kenyararak eta munduko kros espezialistak lehiatzen diren nazioarte mailako proba horietako zirkuituekin alderatu dezakezu. Ez dago alderik. Demasa da. Larunbatean oso gustura ibili nintzen. Gainera, Dantzalekuko zirkuitua korrikalari gisa ditudan ezaugarrietarako primeran datorkit: bihurtzeko, aldapa gora, aldapa behera... denetatik du.

Hemendik aurrera zeintzuk dira zure helburuak?

Asmoa da hemendik aurrera asko entrenatzea, baina asko, eta gutxiago lehiatzea, aire zabaleko denboraldiko pistan Nafarroako Txapelketetako 1.500 metroan eta 5.000 metroan marka polita egiteko. Gogotsu nago, eta entrenatzen gustura, txapelketetan ahalik eta lan onena egiteko. Hori dut buruan.



Leire Estarriaga Navarro etxarriarrak lasterketa polita egin zuen.



Ivan Sobredo "Triki", Nafarroako Kros Laburreko Txapelketako lehen altsasuarra.



NKJ-etako Banakako Nafarroako Txapelketako 10 urtez azpiko gizonen irteera.



NKJ-etako emakumezkoen 10 urtez azpiko helmugaratzea.

Diego Miguelenak (15:10). "Orain arte bigarren eta hirugarren postuak bai, baina ez dut txapelketa absoluturik irabazi, eta oso pozik nago" aitortu zuen Nafarroako Kros Laburreko txapelketak (15:10). 14 segundo atera zizkion David Perezi (15:14) eta 15 segundo Israel Arbizu etxarriarrari (15:15), biak bere taldekideak. Ivan Sobredo "Triki", lehen altsasuarra (16:14), proba absolutuan hamaseigarren.

Emakumezkoetan photo finisha

Emakumezkoetan borroka epikoa izan zuten Izaskun Beunza olaztiarrak eta Maria Ordoñezek, biak Beste Iruña klubekoak. Hasiatik batera ibili ziren, baina azken itzulian Maria Ordoñezek metro batzuk atera zizkion Beunzari. Hala ere, olaztiarrak ez zuen etsi eta Dantzalekuko pistako helmugan Ordoñez harrapatu zuen. Biak denbora berean sartu ziren (17:14), baina Ordoñez izan zen lehena, oso gutxiatik. "Azkeneko esprintean ia harrapatu nau eta aldi berean sartu gara, oso estu. Ezusteko garaipena izan da, espezialistagoa den jendea nagusitzen baita, baina Nafarroako azkarrenak ez daude eta nabaritu da, bestela ez bainuen irabaziko" zioen irribarrez. Ardoi taldeko Marta Fernandez sailkatu zen hirugarren (19:28).

Guztira 88 korrikalari sailkatu ziren Nafarroako Kros Laburrean eta 37. Altsasuko Krosean. Klubak kontuan hartuta, emakumezkoetan Beste Iruña izan zen lehena, eta gizonzkoetan Hiru Herri. Txapelketa, aldi berean Master Txapelketa zen. Master 35 mailan Ion Torralba (15:30) eta Izaskun Beunza (17:14) gailendu ziren, eta Ivan Sobredo izan zen lehen sakandarra gizonzkoetan, Master 35 mailan bosgarren (16:14). Master 45 mailan Gerardo Clemente (17:01) eta Marta Muñoz (20:05) gailendu ziren. Mikel Berdud (17:20) izan zen lehen sakandarra, Master 45 mailan sailkapenean laugarren.

Altsasuko Kros herrikoiari dagokienez, Kevin Alves (Hiru Herri) izan zen txapelduna (16:56) Iker Iztuetaren (17:18) eta Amets Calvaren (18:54) aurretik. Jorge Iradi altsasuarra bosgarren sailkatu zen (19:06). Emakumezkoen ez zen lehiatu.


NKJ-etan txapeldun sakandar bat
NKJ-etako Nafarroako Banakako Txapelketak izan ziren jendetsue-

"Pena eman zidan, baina egindakoarekin pozik nago"

IZASKUN BEUNZA AZAZETA BESTE IRUÑAKO KORRIKALARIA

Nafarroako Kros Laburreko zer nolako final estua eskaini zeniguten Maria Ordoñezek eta biek. Bera gaintzekotan egon zinen, eta oso gutxiatik ez zenuen lortu, denbora berean sartu baitzineten (17:14).

Maria taldekidea eta laguna da eta oso ongi ezagutzen dugu elkar. Sarritan tokatu izan zaigu biak parean egotea. Mendi korrikalari oso ona da eta indar asko dauka. Nire taktika izan zen bere ondoan ahalik eta gehien mantentzea, banekielako erritmo altua jarriko zuela. Berarekin joan eta azkeneko esprintean berari aurrea hartzea, ni pistan gehiago aritzen naizenez, azkartasun puntu hori entrenatzen dudalako. Lehen bi itzuliak elkarrekin egin genituen, baina hirugarrenean metro batzuk atera zizkidan. Geroz eta



gertuago nuela ikusita, erritmoa bizkortu nuen eta oso gutxiatik ez nuen harrapatu, oin erdi batengatik. Ze pena, helmuga metro batzuk urrutirago balego... Hau pilotan final bat 21 tantorekin galtzea bezalakoa da. Momentuan pena nuen, eta etxean izanda gehiago, baina egindakoarekin oso pozik nago. **Dantzalekuko zirkuitua nola zegoen?**

Lokatza zegoen baina guztiz lokaztuta zegoen Ortuellako krosetik nentorren, Espainiako

Kros Txapelketatik, eta haren ondotik Altsasun ez zitzaidan iruditzen horrenbesteko lokatza zegoenik. Dantzalekuko zirkuitua oso polita da. Hori da benetako krosa. Gainera, korrika egiteko baldintzak primerakoak ziren: tenperatura, zirkuitua ere oso polita --pixka bat moldatu zuten eta asko gustatu zitzaidan-- oso ongi.

Hemendik aurrera zeintzuk dira zure helburuak?

Martxoaren 25ean Burjasoten (Valentzia) jokatu diren Espainiako Pista Txapelketa absolutuan 10.000 metroko lasterketan parte hartzeko gutxieneko denbora dut, eta Ortuellako krosa eta gero buru belarri hasi nintzen prestatzen. Entrenamendu oso fuertek egiten ari naiz, gogorrak eta erritmo bizietan. Erronka zaila jarri diot nire buruari: 10.000 metroak 36 minututik jaistea. Zaila da, baina markatu dizkidaten entrenamenduak orain arte egin ditut, eta saiatuko naiz. Gero proba egunean dena zure alde egon behar da, kirola horrela delako, baina saiatuko naiz.

nak, kategoria txikietan ehunka korrikalarik hartu baitzuten parte. 18 urtez azpiko kategorian Mikel Abad (San Adrian) eta Maria Alduan (Ribera At.) dira Nafarroako txapeldunak; 16 urtez azpikoan Xabier Aranjuelo (Pamplona At.) eta Gema Santesteban (San Adrian); 14 urtez azpikoan Gorka Villar (Iranzu) eta Paula Fernandez (Ribera At.); 12 urtez azpikoan Diego Miranda (Hiru Herri) eta Naia Monreal (Tafalla); eta 10 urtez azpikoan Aiur Matias Asurmendi (Dantzaleku) eta Iru- ne Murie (Gana). Beraz, Nafa-

rrako txapeldun sakandar bat dugu: Aiur Matias.

Pozik zeuden Dantzaleku Sakana-koak. Atletismo eskolako Aitor Mendoza handik hara zebilen, Nafarroako Atletismo Federaziokoei beharrezko laguntza ematen eta proban izena eman zuten Dantzaleku Sakana klubeko 42 korrikalariei jarraipena egiten. Guztia ongi atera zelako ere kontentzu zeuden eskolakoak. Baita federazioko presidente eta kideak ere, ikuskizun ederra egoteaz gain, guztia ezin hobe atera zelako.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rolak, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Etxarri Aranazko eta Ergoienako gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Ipuin kontaketa muskatua.

Izaskun Mujika ipuin kontalariak eta Francesca Romana Di Nicola harpa-jolearen *Bazen behin Etxe-ari* ipuin kontaketa musikatua, Ikastolak herriari 2023 Andra Mari ikastolaren egitasmoaren barruan.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pediatrak Altsasun orain! Osasun publiko eta kalitatezkoa guztiontzat kontzentrazioa.
18:00etan, udaletxearen aurrean.

ZIORDIA Liburu aurkezpena.

Asisko Urmenetaren *Amairu! Libera State* liburuaren aurkezpena eta solasaldia.

19:00etan, liburutegian.

IRURTZUN Hitzaldia.

Erdiz bizirik nahi dugu taldearen *Lurraren osasuna, gure etorkizuna* solasaldi informatiboa.

19:30ean, Pikuxarren.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Txalainak Hertzainak bertso taldearen kontzertua.

23:00etan, Leku Ona tabernan.

LARUNBATA 4

URDIAIN Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rolak, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Urdiaingo gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.

10:30etik 13:30era, herrietxean.

ETXARRI ARANATZ Kantuz eguna.

Hotsein! Nafarroa Oinez 2023 egitarauaren barruan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Filmoteka Nafarroan: Helena Tabernaren *Nerabe* eta *La Mujer de Lot* film laburren emanaldia
Ostirala 3 19:00

***El triángulo de la tristeza* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**

Igandea 6 19:30

***Iraiti* gaurkotasunezko filmaren emanaldia, gaztelaniaz**
Osteguna 9 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

***Rumba terapia* zineforum filmaren emanaldia**
Igandea 6 19:30

***Rabiye Kurnaz contra George W. Bush* zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 9 19:00

12:00 Kantu jira, Bakaikun, Etxarri Aranatzen, Arbizun eta Lakuntzan.

15:00 Bazkaria, Borda jatetxean. Bazkalostea, Kuxkuxturekin kantuz.

LAKUNTZA Kontzertua.

Kalakan taldearen Artizar kontzertua.
19:30ean, kultur etxean.

IGANDEA 5

ARBIZU Zuhaitzaren eguna.

2022an jaiotako haurren zuhaitz landaketa.



IRURTZUN Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezank Hirea Aurkitu Gaitunk Geurea* pintura erakusketa.
Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.

12:00etan, plazan.

ALTSASU Kontzertua.

Burning Heads taldearen eta Haizkan talde sakandarraren kontzertua.
19:30ean, gaztetxean.

ASTELEHENA 6

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

OSTIRALA 10

OLAZTI Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rolak, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Olaztiko eta Ziordiko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.

17:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Joxe Farrak Joxe Aldasoro etxarriarraren bakarrizketa saioa.
22:00etan, Leku Ona tabernan.

ZORION AGURRAK



Adei
Adei, 10 urte daunekos! Zorionak etxeko tikiinai. Ilargiraino ta buelta maite zaitugu! Lizarragako familiak.




Alaitz
Zorionak Alaitz! 11 urte! Egun polita pasa. Muxu asko familiaren partez




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 3




Larunbata, 4



Igandea, 5



Astelehena, 6



Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erozketa Irurtzunen

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra
XI. Urteurrena
(Bakaikun, martxoaren 3an)



Urteak pasatzen dira eta geroz eta gehiago sumatzen dugu zure falta. Ze zaila den zu hemen ez izatea!

Gorkaren lagunei beti eskertuko diegu bera maitatzea eta gogoan izatea.

Aita, ama, Iker eta Erkuden

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra
XI. Urteurrena
(Bakaikun, martxoaren 3an)

Zure indarra, gure eredu.
Beti gure bihotzetan.

Arbizu eta Bakaikuko familia, maitasunez

OROIGARRIA

Gorka Larrea Ondarra
XI. Urteurrena

Zure ederra izango den eguzki izpiak
Zure itzala belarretan marrazten...
Muxu bat Larrea...
Garagardo bat hiru haitzetan zure omenez.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Maite zaitugu.

Zure lagunak

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etzarri Aranatzeko pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldaria, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Aralarko San Migel Santutegiko taberna jate-txean: Zerbitzariak eta sukaldaria (edo sukaldari laguntzailea) behar ditugu asteburutan lan egiteko. Informazio gehiagorako deitu 680 444 457

IKASTAROA

Mugimendu kontzientzia eta zoru pelbikoa ikastaroa Arakilen: Arakilgo Udalak antolatuta, plaza mugatuak diren arakildarrek lehentasuna izango dute. Ikastarora estera eramatea ezinbestekoa izango da. Ikastaroa bi saiotan egingo da martxoaren 10ean eta 17an, ostiralarekin, 18:00etatik 19:30era. Izena emateko tinoa 634 584 226.

OHARRAK

Altsasuko Elkartasun azokarako bilketa solidarioa: Erabiltzen ez dituzun (arropa, jostailu, maindire eta abar) eta egoera onean dauden gauzak Altsasuko Erkuden kaleko 8. zenbakian dagoen lokalera (Sociedad deportiva zena) ekarri ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara. Bildutakoarekin apirilaren 23an Elkartasun Azoka egingo da. Informazio gehiago anitzar-tean@sakana-mank.eus emailera idatzi edo 648 070 710 telefonora deitu.

Abeltzaintza industriaren aurkako diru bilketa: Sustrai Erakuntza Valle de Odieta makroerregioaren aurkako auzian herri akusazio gisa gauzatu da. Ingurumenaren aldeko eta lurraldearen defentsarako borroka indartzea eta babestea da. Ekimen hau aurrera atera ahal izateko diru biltzeko kanpaina bat burutzen ari da, edozein ekarpen ongi etorria izango dela diote. Jarraibideak web orrialde honetan dituzue: <https://sustraiarakuntza.org/>.

Altsasuko kontsumitzaileen udal bulegoa: Nafarroako Kontsumitzaileen Iratxe Elkarrekin atzeratu du aurretik 012 telefonon hitzordua hartuta. Doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute

eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsen idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Crowdfunding Kanpaina Josefina Arregui Klinikari berritzeko: Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkarrekin diru bilketa hasi du Eguneko Zentroa berritzeko eta handitzeko, helburua 75.000 euro lortzea da. Diru ekarpenak www.josefinaarregui.com web orriaren bidez egin daitezke, txartel, Bizum edo kontu-zenbaki baten bidez ekarpenak eginez edo Laboral Kutxan eta La Caixa banketxeetan ireki diren kontuetan dirua sartuz. Kanpainak 2023ko otsailaren 15era arte iraungo du. Informazio gehiago klinikaren web orrian edo 948 563 850 telefonora deituz.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Aritz Jauregi Albarracín
I. urteurrena

Gure bihotzetan betiko, maitia

Zure familia

JAIOTZAK

- **Intza Aizpun Bermejo**, otsailaren 23an Arruazun
- **Unax Reparaz Millan**, otsailaren 24an Arbizun
- **Kofi Ezenrane Yankei**, otsailaren 24an Altsasun

HERIOTZAK

- **Juana Mugarza Arrondo**, otsailaren 24an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Otsailaren 19an Iruinkokoa izan zen Iruñeko Alde Zaharrean eta aurten lehenengo aldiz Ane Zelaia Ruiz de Egin dantzari altsasuarrrak parte hartu zuen. Kokoxuria izan zen, hau da, libertimenduan dantzariak egiten duten papera.

Zer da Iruinkokoa?

Libertimendu bat da. Libertimenduak dantza, antzerkia eta bertsoa uztartzen ditu, eta inauteri garaian lotzen dira. Sorkuntza bat da. Normalean iparraldean egiten dira, baina pertsona batzuek Iruñera ekartzeko ideia izan zuten eta hortik sortu zen Iruinkokoa. Aurten bosgarren urtea izan da. Lehenengoa 2018an izan zen eta pandemiaren aurretik izan zenez, 2020an egin zuten. 2021ean streaming bidez egin zuten eta 500 bat pertsona egon ziren ikusten. Oso interesgarria izan zen.

Zer kontatzen du?

Antzerkiak errealitatean gertatu diren hainbat gauza kontatzen ditu. Normalean, Iruñean gertatzen diren gauzekin lotuta dago, baina aurreko urtean justu Ukrainiako gerra hasi zela, zerbait sartu zuten. Aurten migrazioarekin hasi ziren. Kritika bat da eta pentsaraztea nahi dute. Pello Reparaz sartu zuten, Jon Maia, Irulegiko eskuak ere garrantzia izan zuen... Pil-pilean dauden gaiak. Bestetik, Kokoxuriak dantzariak gara eta antzerkia egiten dutenak Kokobeltzak. Iruinkokoa pertsona baten alde ona eta txarra irudikatzen duen zerbait da. Alde ona dantzariak gara, Kokoxuriak, eta alde txarra Kokobeltzak. Baina gu ere ez gara onak azeriak garelako eta izurritea garelako. Bukaeran, borroka antzeko bat dago eta guk irabazten dugu. Irakaspen bat dago.

Non egiten da?

Iruñeko Alde Zaharrean egiten da. Gu dantzariak Zaldiko Maldiko euskal elkartetik atera ginen eta asalduek genituen, geldialdiak nolabait esateagatik. Lehenengoa Muthiko Alaiak peñan egin genuen, ondoren, Dormitaleriako auzokideek asaldua prestatu ziguten. Dantzatu egin genuen eta haiek janaria eta edaria prestatu zizkiguten. Hurrengo asaldua Dugunan egin genuen eta aurten ere Abarzuza liburudendan gelditu ginen Marcela omentzeko. Ondoren, Santa Ana plazara joan ginen eta han egiten da eguneko

"Iruinkokoa espektatibak gainditu ditu; disfrutatu nuen"

ANE ZELAI A RUIZ DE EGINO DANTZARIA

Altsasuarra Kokoxuria bihurtu zen Iruñean egindako Iruinkokoa libertimenduan. Aurten lehenengoa aldia izan da, baina "dudarik gabe" datozenetan errepikatuko du



Ane Zelaia Ruiz de Egin dantzaria Iruinkokoa-ren kartelarekin. UTZITAKOA

ekitaldi garrantzitsuena: dantzariak, antzerkilariek eta bertsolariak eguneko ikuskizuna egin genuen.

Nola ezagutu zenuen? Nola sartu zinen?

Aurten Iruñean bizitzen nago eta Iruñea dantza taldean izena eman nuen. Kartela bidali zuten baina hasieran ez nion kasu handirik egin. Dantzako irakaslea etorri zitzaidan eskaintzera baina Iruinkokoa informatzera, nik ez nuelako ezagutzen. Dantzariak behar zirela esan zidan, eta animatu nintzen. Oso dantza zalea naiz eta ideia polita iruditu zitzaidan arlo pertsonalean ere. Erroka zen hamahiru dantzari biltzea, eta bildu ginen.

Zenbat denborarekin prestatu duzue?

Niretako dantza guztiak berriak izan dira. Hamahiru dantzarietatik bost edo sei berriak izan gara eta nahiko lan izan dugu dantzak ikasten. Uste dut urrian kartela bidali zutela eta azaroan, ezer baino lehen, Koko Eguna prestatu zuten gure artean ezagutzeko eta Iruinkokoa zer zen azaltzeko. Hortik aurrera, igandero entseguak izan ditugu eta

"NIRETAKO DANTZA GUZTIAK BERRIAK ZIREN; ASKO IKASI DUT, OSO POLITA IZAN DA"

Eguberrietako oporretan ere pare bat egunetan entseatu dugu. Lehenengo entseguak toki itxi batean izan ziren, eta azken hilabetean Santa Ana plazan.

Zer moduzko esperientzia izan da? Espektatibak zenituen?

Espektatibak gainditu ditu. Egia esan, hainbeste lan ondoren oso oso urduri hasi nuen eguna. Egun abstraktu bat bezala zen. Baneien zer egin behar nuen: 09:30ean atera, asalduek... Baina ez nuen nire burua jantzi horrekin ikusten, Iruñeko Alde Zaharretik dantzaten... Altsasun dantzatzera ohituago nago, baina Iruñeko Alde Zaharrean dantzatzeko badu bere garrantzia niretako. Fanfarrea entzun nuenean urduritasuna joan zitzaidan eta pila bat disfrutatu nuen.

Jantzi bereziak dira, ezta?

Jantzi oso berezia da. Azeri bat irudikatzen du. Kokoa izurritea da eta azeria, eltxoaren metafora bat da. Orduan, eltxoak izurritea ekartzen du ere. Kapela bat daramagu eta kapelan bi belarritxo daude, azeri forma duen azeri bat ere eramaten dugu. Alkandora, gona eta hanketan zintzarriak. Ez dago genero bereizketarik, denak berdin-berdin goaz. Jantzi hauek auzolanean egin zituzten duela bost urte lehenengo Iruinkokorako.

Dantzak oso desberdinak ziren?

Pausoak ez dira berriak, baina hauen arteko loturak bai. Maki-lekin dantzatu genuen, eta ez zen lehenengo aldia, egurrezko ezpatekin... Hasieran pausoak koordinatzeko zaila egin zitzaidan hankak eta besoak koordinatu behar nituelako. Pauso batzuk ere nik desberdin egiten nituen dantza taldean desberdin egiten zirelako. Orduan, buruan nuena deseraiki behar nuen eta berria asimilatu eta barneratu. Zintzarriekin dantzatzeko nuen lehenengo aldia izan da ere. Ongi moldatu naiz, baina inpresioa desberdina da entseguak zintzarririk gabe egiten genituelako gainera. Asko gustatu zait sekulako soinua ateratzen dutelako. Pausoak markatzen dizkizute. Soinua oso zirrarragarria da. Zuk sortzen duzu zarata momentu horretan. Asko ikasi dut. Dantza talde desberdinak daude, eta bakoitzak bere estiloa dauka. Oso polita izan da.

Errepikatuko duzu?

Bai. Ezagututa nolako den eguna, dantzak ikasita eta sortzen den giroa ikusita, dudarik gabe.



Irurtzugo pintura taldeko lau kide kultur etxeko tailerrean.

Pintura unetxoak

Irurtzugo pintura taldeak 'Emakumea 8 eratan' erakusketa mustuko du martxoaren 6an herriko bi tabernatan. Tailerrak hogeitun urte baino gehiago ditu eta, zaletasuna lagun, pintura talde bat baino gehiago bihurtu da margolariendako

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN Irurtzugo pintura tailerreko klaseak astelehenetan, 16:00etatik 19:00etara, dira. Gerta liteke egunen batean etxetik ateratzeko gogorik ez izatea, "baina etortzen naizenean eta pintura eta agurrasa usaintzen hasten naizenean, neke guztia joaten zait". Margotzen hasten dira eta "orduak eta orduak" pasa ditzakete pintura taldeko kideek tailerrean. "Denbora pasatzen zaigu konturatu gabe". Horregatik ere, klase "ofizialetatik" kanpo pare bat egunetan kultur etxeko tailerrera joaten dira. Martxoaren 8aren harira eta emakumea oinarri hartuta *Emakumea 8 eratan* erakusketa mustuko dute martxoaren 6an La Tahona eta La Moncloa Irurtzugo tabernatan.

Hamaika kidek osatzen dute Irurtzugo pintura tailerra. Tal-

dea 2000. urtean hasi zen gaur egun jarraitzen duen irakaslearekin. "Jende asko pasatu da, joan eta etorri asko izan dira, eta orain nahiko talde egonkorra dugu". Bizitzaren gora beheerengatik jendeak tailerra uzten du, "baina gero itzultzen dira". Batzuk hasieratik daude ere. Zortzi emakume eta hiru gizon daude momentu honetan tailerrean: "Mutiko gazte bat dago, haurrendako egiten den tailerrean parte hartzen zuena ere. Joan zen eta Arte Ederrak ikasi zituen eta itzuli da margotzen jarraitu nahi duelako". Tailere-

MARTXOAREN 6TIK 31ERA 'EMAKUMEA 8 ERATAN' ERAKUSKETA IZANEN DA IKUSGAI IRURTZUNEN

rreko kideak "afizioagatik" joaten dira margotzera. "Urte asko daramatzagu eta batzuetan badirudi ez dakigula ezer. Disfrutatzen eta etortzen gara; gustura egotera". Intuizioari jarraituz margotzen dute.

Espazioa

"Margotzea eta gustura egotea toki honekin elkartzen dugu. Etxean margotu genezakeen, baina beti daude gauza gehiago egiteko... Esan bezala, bakarrik dagoen usainarekin beste gauza bat da. Oso gustura egoten gara hemen". Pintura eta tailerrean sortzen den egoerak "erakartzen" die.

Oleoan eta akrilikoan margotzen dute, gehien bat, Irurtzugo pintura tailerreko kideek. Bodegoiak marrazten eta margotzen hasten ziren, ondoren pastelarekin aritu ziren ere, baina oleoarekin eta akrilikoarekin

daude gustuen. Marrazten dutenak ere badaude.

Batzuetan zer lan egingo duten aukeratzea "gehien" kostatzen zaiena dela aitortu dute. Argazkietan eta irudietan oinarritzen dira: paisaiak, egoerak, pertsonak... Haien lan gehienak "errealistak" direla esan dute. Dena dela, "bakoitzak baditu bere koloreak". Tailerreko edozein kideren koadro bat ikusten badute egilea identifikatu dezaketela komentatu dute.

Margotzea ez ezik, tailerrean sortzen den giroa gustatzen zaie margolariei. Azken bi urtetan pandemiagatik izan ezik, urtero bidaia bat egiten dute elkarrekin. "Toki askotan egon gara: Paris, London, Erroma, Madrilen ARCO-n pare bat urtez,artzelona, Sevilla, Granada...". Aurten martxoaren 13an joanen dira

Cáceres eta Madrilera, lau egun. "Cáceres eta Mérida ezagutuko ditugu eta Madrilen erakusketaren batera joanen gara". "Disfrutatzen" bidaia bat da, baina "inspiratzeko" aukera ematen die ere. "Ez da erraza museotara eta erakusketara joateko lagunak aurkitzea, eta hemen zaletasuna konpartitzen dugunez, gustura egoten gara". Talde on bat osatu dutela esan dute. "Oso ongi pasatzen dugu".


Erakusketa

La Tahona eta La Moncloan egonen den erakusketan urte hauetan egin dituzten emakumeen koadroak egonen dira ikusgai. "Normalean gai bat jartzen dugu martxoaren 8ra begira, baina aurten libreago utzi dugu". Emakumeak "era" desberdinetan erakusten dituzte koadroek.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR





Mikel Gastarena botikaria.

"Aholkularitza eman dezakegu orain"

Nafarroako Farmaziak emakumearen kontrako indarkeriaren prebentziorako puntu moreak bihurtu dira. Sakanako Mank-eko Berdintasun zerbitzuaren trebakuntza jaso dute Irurtzungo Mikel Gastarena eta bere bazkidea Jorge Martiarena botikariek

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Zergatik erabaki zenuten farmazia puntu morea izatea?

Nafarroako Farmazialari Elkargo Ofizialaren bidez izan zen. Haiek Nafarroako Gobernuarekin eta zenbait instituzioekin protokoloa sinatu zuten eta kartelak bidali zizkiguten. Atean dugu. Horrelako biolentzia egoeretanlagun badaiteke, ezin duzu ezezkoa eman. Horren harira, Sakanako Mankomunitateak protokoloa azaltzeko bilera egin digu.

2 Trebakuntzarik jaso duzu?

Elkargoak esan zigun eta Interneten irakurri genuen zertan zetzan. Ondoren, Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko berdintasun teknikariek azaldu ziguten. Mankomunitateak arlo soziosanitarioan, sozialean, larrialdi egoeretan eta abarretan zer egin azaldu zigun.

3 Zer egin behar duzue?

Pertsona bat laguntza eske etortzen bada, lagundu. Berdintasun teknikariek azpimarratu zuten gu ezin garela sartu, ezin dugula presioa egin. Egoera batzuetan tematzen bazara agian okerragoa da. Orduan, norbaitek laguntza eskatzen badigu, esan badituela tresna eta bide asko laguntzeko. Esan ziguten beste gauza bat dela pertsona bat ihesean etortzen ikusten badugu edo indarkeria zantzu nabarmenak dituela ikusten badugu, larrialdietara deitu dezakegu. Baina hau guztia beti baimenarekin. Pena da batzuetan ez dutelako nahi, baina ezin dugu inoren nahiaren gainetik aritu. Lehenengo pausoa berea izan behar da. Guk tresnak eta prebentzioa eman ditzakegu.

4 Baina egoeraren berri izan dezakezue, ezta?

Bai, eta deitu diezaiokegu osasun etxeko gizarte langileari edo berdintasun teknikariei.

5 Zein da helburua?

Farmaziak gertuko puntu bat gara, arlo soziosanitariokoa eta izan daiteke emakumeak seguru sentitzeko toki bat ere bai. Ez gara medikuak, baina botikariak gara. Osasun etxearekin harreman zuzena dugu ere, medikuekin, erizainekin, administraziokoekin...

6 Eta orain berdintasun teknikariek ere.

Bilera bakarra egin dugu, baina Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko berdintasun teknikarien telefonoak ditugu beraiekin zuzenean hitz egin ahal izateko.

7 Protokolo honen aurretik bazegoen zerbait?

Zerbait egongo zela imajinatzen dut. Egia da ere elkargoaren kar-

tela iritsi zitzaigula eta informazio gehiago iritsi behar omen zela, baina ez genuen jaso. Mankomunitateari esker jaso genuen informazio gehiago.

8 Emakumearen kontrako indarkeria egoeraren bat bizi izan duzue?

Momentuz ez; eta atzetik zerbait egon daitekeen susmoa nik behintzat ez dut izan.

9 Orain dituzuen tresnak baliagarriak dira.

Bai, noski. Prebentzio eta aholkularitza eman dezakegu orain, jakin dezaten tresna horiek guztiak dituztela egoera horretatik atera ahal izateko. Baina, esan bezala, ezin dugu behartu eta ezin dugu baime-

nik gabe, esaterako, polizia deitu.

10 Zer suposatzen du zuendako?

Oso ongi iruditzen zaigu laguntzea. Hoberena izango zen horrelako egoerarik ez tokatzea, baina badakigu indarkeria matxista asko dagoela, baita ikusten ez den asko ere, eta oso zaila da azaleratzea. Argi dago, nire aurrean gizon batek emakume bat gaizki tratatzen badu ez dudala onartuko. Etortzen badira laguntza eske, laguntzeko prest. Egoera oso zailak izaten dira.

11 Farmazia guztiak parte hartzen duzue?

Nik uste dut baietz. Nafarroako Gobernutik datorren zerbait da.

ERALDATU
zure irudia

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus